

HIZKUNTZA- ETA BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK. GOGOETARAKO HELDULEKU BAT.

2020-01-15

DOKUMENTUA IRAKURTZERAKOAN ARRETA ZERTAN JARRI:

- Alderdi hauen inguruan hausnartuko dugu gogoeta-saioan: **Hizkuntza-politiken eta berdintasun-politiken antzekotasunak, ezberdintasunak, ikaspenak, praktika baliagarriak / inspiragarriak / transferigarriak eta aliantzarako aukerak.** Helburua da bi eremuetako politikek elkarrengandik ikastea eta horiek hobetzea eta indartzea.

DOKUMENTUAREN EZAUGARRIAK:

- ✓ **GOGOETARAKO HELDULEKUA; DOKUMENTU EZ-OSATUA** Dokumentazioan hizkuntza-politiken eta berdintasun-politiken inguruko informazioa jaso dugu. Gauza asko geratuko ziren kanpoan ziurrenik, baina helburua ez da politiken inguruko azterlan bat egitea. Dokumentazioak tresna bat izan nahi du gogoetan laguntzeko; batez ere, hizkuntzaren edo berdintasunaren eremua ezezagunagoa zaienentzat. Dokumentuaren helburua gogoetarako eta ikaspenak ateratzeko helduleku bat eskaintzea da. Beharrezko ikusiz gero, jasotako informazioa sakontzeko fase bat ere ireki dezakegu aurrerantzean.
- ✓ **DOKUMENTU DESKRIPTIBOA** Dokumentuan eremu bakoitzean garatutako politika publikoak deskribatzen saiatu gara. Oro har, ez dugu politiken eraginkortasuna eta indarra baloratu (politika horien ikaspenak, balorazioa, inpaktua, baliagarritasuna...). Azterketa hori gogoeta-saioetan egitea litzateke asmoa.
- ✓ **DOKUMENTU PARTZIALA** Lehenengo hausnarketa-fasean politika publikoen azterketa egiteko eremua mugatzea erabaki dugu, politika publikoen eremu oso bat gogoetatik (eta dokumentutik kanpo utziz). Ondorengo aurkibideko 1-4 eremuetan zentratuko gara, gizartearen eta aliantzen eremuak aurrerago aztertzeko utziz; bi arrazoiengatik, nagusiki: (1) Informazio asko pilatu dugu, azkenean, eta gogoeta egiteko lehenetsunak finkatu beharra ikusi dugu, denari buruz hausnartzeko ez dugulako denborarik izango goiz bakarrean; (2) Gizartearen eta aliantzen alorra gehiago garatu beharko genuke, besteak beste, mugimendu sozialek egiten duten irakurketa jasoz eta gogoetan beren parte-hartzea ahalbidetuz.

HIZKUNTZA- ETA BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK. GOGOETARAKO HELDULEKU BAT.

2020-01-15

Dokumentuaren egitura:

1. Ibilbide historikoa
2. Lege-markoa
3. Politiken misioa, bisioa, hartzailleak, eremuak eta estrategiak
4. Administrazioa
 - 4.1. Egiturak: koordinazio- nahiz sustapen-egiturak
 - 4.2. Plangintza orokorrak
 - 4.3. Berariazko politikak
 - 4.4.1. Berariazko politikak oro har
 - 4.4.2. Dirulaguntza-politikak
 - 4.4. Zeharlerrotasunaren estrategia: oinarri juridikoa, trebakuntza, estatistikak, aurrekontuak, klausula sozialak eta inpaktu-txostenak

Dokumentutik kanpo (eta beste batean aztertzeko) utzi ditugun alderdiak:

- **Gizartea** (arlo sozioekonomikoa, hedabideak, hezkuntza-sistema, aisia eta kirola, kulturgintza, familiak/elkarbizitza-unitateak, sentzibilizazioa eta motibazioa)
- **Aliantzak: herritarren eta eragileen bultzada eta lankidetzak (erakundeak+mugimendu sozialak)**

1. IBILBIDE HISTORIKOA

HIZKUNTZA-POLITIKAK

Hizkuntza-politiken bilakaeran, mugarri batzuk:

Frankismoan euskararen eta euskal kulturaren debekua eta jazarpena.

- 50 eta 60ko hamarraldian, **euskara eta euskal kulturaren pizkundera** hasten da, herritarren gogo eta ekimenetik. Dantza-taldeak, mendi-taldeak eta antzekoak sortzen hasten dira. Eta ikastolak ere testuinguru horretan hasten dira sortzen, oso modu heterogeneoan, hasieran.
- 60ko hamarralditik aurrera **ikastolen mugimenduak** indar handia izango du. Emakumeak andereño-lanetan.
- 1953 Jakin aldizkariaren sorrera. 1963 Argia aldizkaria.
- 70eko hamarraldia. Helduen alfabetatze eta euskalduntzerako **gau-eskolak** sortzen dira, herri-ekimenetik eta klandestinitate-egoeran. Gipuzkoan hasi eta EH osora hedatu ziren. 1980an AEK koordinadora sortu zuten.
- 1968. Euskara batuaren sorrera. Euskaltzaindiak. Euskalkien artean elkar ulertzearen arazoak gainditzeko eta hainbat alorretan hizkuntza arautu baten beharrari erantzuteko.
- 1966-1972. Euskara eta **euskal kultura berreskuratzeko, berritzeko eta plazaratzeko mugimendu kultural esanguratsua: Ez Dok Amairu.**
- Laburbilduz, herri-ekimenetik sortutako dinamika indartsuak (hizkuntza-politika herri-ekimenetik, batez ere): haurren eta helduen euskalduntzean indar berezia jarritz. Eta euskararen estandarizazioan, euskara plazara ateratzeko beharrezkoa.

....

- Frankismo ondorengo **ikastolen eta euskararen aldeko jaiak** (1977 Kilometroak, etab.)
- **1979. Euskal Herriaren Euskaraz** sortu zen. "Euskararik gabe, Euskal Herriak ez" lelopean ekin zion bideari.
- 1979. Gernikako Estatutuak **euskara EAEko berezko hizkuntza** izendatu zuen eta gaztelaniarekin batera **ofizial** egin zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoan.
- 1980. Eusko Jaurlaritzaren sorrera. **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila** sortu. Hizkuntza-politika publikoak abiatu zirenean, bi helburu nagusi zituzten: euskararen estandarizazioa eta euskalduntzea (hezkuntza-sisteman eta helduen euskalduntzean oinarrituta, batez ere).
- **1980. Korrikaren** sorrera, AEKren eskutik. EH guztia zeharkatzen du, gelditu gabe, espazio publikoa okupatuz eta mugimenduan. Nabarmentzekoa da eskatzen duen antolaketa-lan itzela eta lortzen duen partaidetza/atxikimendu handia.
- **1982. Euskararen Normalizazio Legea.**
- **1982. ETBren sorrera**, euskararen normalizaziorako tresna garrantzitsu gisa.
- Herri Irratia EAEn, Euskal Herria Irratia Nafarroan, Gure irratia Iparraldean, eta Euskadi Irratia lurralde osoan emititzen dira. Irratiak berebiziko garrantzia izan du euskararen normalizazioan gertuko hedabidea delako eta alfabetatua egotea (irakurtzen jakitea) eskatzen ez duelako.
- 1983. Eusko Jaurlaritzak **HABE** sortu zuen, AEKrekin lehian. AEKrekin harreman gora beheratsua. 1993an AEKren dirulaguntzak eten zituen; baina 1995ean dirulaguntza lerroa sortu eta euskaltegiak homologatzeari ekin zion.

1. IBILBIDE HISTORIKOA

- 1986. **Nafarroan Euskarari buruzko Legea**, hiru hizkuntza eremu ezartzen dituena: euskalduna (non euskara ofiziala den gaztelaniarekin batera), mistoa (estatus anbiguokoa) eta ez-euskalduna (gaztelania soilik ofiziala).
- 1990. **Euskaldunon Egunkaria** sortu zen.
- **1997. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortu zen**, maiz Kontseilua moduan laburtua, euskarak garapen osoa izatea helburu duten gizarte erakunde ugariaren bilgunea eta erakundea. Euskararen garapenaren alde lan egiten duten Euskal Herriko 60 gizarte erakunde biltzen dira Kontseiluaren baitan; 8.000 langile eta 150.000 bazkide (2000ko datuak). Euskararen normalizazio prozesua bultzatzeko bi ildo nagusi lantzen ditu Kontseiluak: euskalgintzako erakundearen arteko loturak bultzatzea eta gizarte eragile, indar ekonomiko zein alderdi politikoak hizkuntza normalizazio proiektuetan inplikatzeko. Bai Euskarari Akordioaren bultzatzaile nagusia da.
- **1998. Bai Euskarari kanpaina**. XXI. mendeko Akordioa: Bai Euskarari! Euskal Herriko gizarte osoa hartuko duen gizarte hitzarmen zabala abian jartzea helburu zuen kanpaina izan zen, Kontseiluak sustatua.
- **2000. Bai Euskarari Ziurtagiriaren** sorrera. Lan-munduko entitateetan euskararen presentzia eta erabilera neurtu eta aitortzeko tresna. Bai Euskarari Elkartek sortu eta kudeatua. 2009an HPSk eta Euskalitek **Bikain zigilua** sortu zuten, antzeko helburuekin.
- **2001. Hizkuntza Eskubideen Behatokia** sortu, Kontseiluak sustatuta, Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzeko eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein sozioekonomikoan, babestera zuzentzen du bere jardura. 2006an HPSk **Elebide** sortu zuen, antzeko funtzioekin.
- **2004. Soziolinguistika Klusterraren sorrera**. Ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean, eta aplikazioan ditugun gabeziei eta beharrei dinamika berri batekin erantzuteko. Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat –pribatu, publiko, zein gizarte mailako- arlo zientifiko-aplikatutik datuak, metodologiak, eta bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzen ditu, jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta, ondorioz, normalizazio ahaleginen emaitzak hobetzeko.
- **2004. Euskararen Erakunde Publikoa**. Ipar Euskal Herrian euskararen inguruan lan egiteko botere publikoek sortu duten lehen erakunde ofiziala.
- Bertsolaritzaren modernizazioa eta zabaltzea
- Etab.

HIZKUNTZA-POLITIKEN ERAKUNDETZEA EAE-n

Eusko Jaurlaritzaren sorrerarekin zer hizkuntza-politika abiatu ziren nagusiki?

- Helduen euskalduntzea: HABE (eta AEK).
- Haur-gazteen euskalduntzea: Hezkuntzan hizkuntza-ereduen sorrera (A,B eta D).
- Euskarazko hedabideak bultzatzea: ETBren sorrera.
- Lan-mundu pribatuan lehenengo euskara-planak: 90ko hamarkada.
- Administrazioa euskalduntzeko erabilera-planak
- Euskararen estandarizazioarekin lotuta, terminologia lanak:
 - 2001ean Terminologia Lanen I Plana abian jarri zen.

1. IBILBIDE HISTORIKOA

- Banko publikoa sortu (Euskalterm, 2001)
- EUSKARAREN Aholku Batzordearen barruan Terminologia Batzordea sortu (2002an)

Zein izan da bilakaera? Non jartzen da indarra gaur egun?

- Euskalduntzea: Ehunka mila ikasle pasatu dira euskaltegietatik beren sorreratik, 400.000 bat, urtero 30.000-40.000 ikasle, horretan jarduten dute 2.000 bat irakaslek
- Hezkuntza: 25 urtetik beherako pertsonen euskaldun portzentajea %80tik gora dago. D Ereduko ikasleak %67, B ereduak %19. Unibertsitatean gaur egun %50 baino gehiagok euskaraz ikasten du.
- Hedabideak: Berriaz gain, beste 40 bat tokiko aldizkari; dozena bat euskarazko aldizkari baino gehiago; 16 bat euskarazko irrati pribatu gehiago bi publiko; 2 kanal publiko gehi 8 pribatu.
- Lan mundu pribatua: EJKo dirulaguntzetan 400 erakunde pribatu baino gehiago, Bikain ebaluazioan ehunka erakunde pribatuk parte hartu du.
- Administrazioa:
 - Hezkuntza: irakasleriaren ia euskalduntze erabatekoa (Lanbide Heziketan hutsunea: badago plan bat horri aurre egiteko)
 - Osakidetza: planak martxan ESI guztietan 2003tik a(67/2003 Dekretua)
 - Justizia: 2011tik Planak martxan (174/2010 Dekretua)
 - Ertzaintza: 1998tik Planak abian (30/1998 Dekretua)
 - 86/1997 Dekretuaren eraginpeko erakundeak (EAEko Administrazio Orokorrekoak) 19997tik Planak abian.
 - Administrazioak: % 75ek plana indarrean zuten
 - Sozietate Publikoak: %35ek dute EP indarrean
- Terminologia lanak: 70 bat hiztegi terminologiko sortu, Terminologia Batzordearen lehentasunen arabera. Itzultzaile neuronala garatu da 2019an, bi bertsioekin: administrazioentzat, administrazioarako, eta orokorra mundu guztiarentzat, biak dohainik eskainiak.

BERDINTASUN-POLITIKAK

Berdintasun politiken sorrera:

Eusko Legebiltzarrak 2/1988 Legea onartu zuenean sortu ziren berdintasun politikak EAEn. Lege horrek:

- a) Emakunde sortu zuen, Lehendakartzari atxikia, aurrekontu propioarekin, sustatze-funtzioekin eta gainontzeko erakundeak inplikatur haren Zuzendaritza Kontseiluko kide eginez (**egitura**).

1. IBILBIDE HISTORIKOA

- b) Legealdi bakoitzean EAEko berdintasun-plana egiteko beharra ezarri zuen (**plangintza**).
- c) Urtero plan horren betetze-mailaren segimendua egiteko beharra ezarri zen (**ebaluazioa**).
- d) Urtero emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena egitea (**zifrak**).

Bultzada soziala eta testuinguru normatiboa:

Franco hil ondoren, trantsizio politikoko aldia hasi zen. Demokraziarako bidean, berdintasun-politiken sorreran funtsezko izan ziren bi faktore:

- a) **Mugimendu feminista:** zenbait talde feministak antolatuta 1977an eta 1984an emakumeen jardunaldiak egin ziren eta lehen ahots feministen eraginez emakumeen elkarteak sortzen hasi ziren. 1986an mintegi bat egin zen Zarautzen "Emakumearen arazoa eta Euskadiko Erakundeak" izenburuarekin. Jardunaldiak amaitu zirenean "Emakumea eta Erakundeak" mintegiaren jarraipen batzorde bat sortu zen eta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak hurbil zeudela, emakumeen eskubideen defentsaz arduratuko zen erakundea sortzeko eskaria egin zieten alderdi politiko desberdinen arduradun gorenei.
- b) **Nazioarteko marko juridikoa:** Espainiak nazioarteko giza eskubideen defentsarako itunak sinatu zituen bai eta Europako Komunitatean sartzekoak ere. Itun horiek betetzeko beharrezkoa zen berdintasun politikak abian jartzea.

Berdintasun-politiken bilakaera:

Eusko Legebiltzarrak **Emakunde** sortu zuenetik, institutuak bide berriak ireki ditu berdintasunerantz. Ordutik hona, ahalegin handia egin da administrazio publikoetan berdintasunaren aldeko **egiturak** sortzen, **prestakuntza** bultzatzen, administrazio ezberdinen arteko **sareak eraikitzen**, arlo pribatuan ere berdintasunaren alde lan egin dezaketen hainbat erakunde, entitate eta talde bultzatzen eta laguntzen.

Hauek dira mugarrietako batzuk:

- a) **EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Plana** (1991-1994). Emakumeen eskubideetan eta sustapenean, emakumeen parte-hartzea txikia zen esparruetarako sarbidea ahalbidetzean ipini zuen indarra, eta emakumeak esparru horietan sartzea eragozten edo zailtzen zuten oztopoak kentzen saiatu zen. Politiken helburua emakumeak berak ziren, beren diskriminazio-egoera zuzentzea, alegia.
- b) **EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana** (1999-2005). Izenburuan "politika publikoetako genero-ikuspegia" adierazpena sartu zen, ardura publikoetan ikuspegi honen premia nabarmentzeko xedez. Jarduteko modu hau izendatzeko "mainstreaming" hitzaren erabilera zabaltzen hasi zen.
- c) **Berdintasunerako 4/2005 Legea**. Politika horiei **balio politikoa, juridikoa eta sinbolikoa** eman zien; "borondatezko politikak izatetik "derrigorrezko" politikak izatera pasatzen dira. Legeari esker, besteak beste, berdintasun politiketara zuzendutako egiturak, langileak eta baliabide ekonomikoak nabarmen handitu ziren.

1. IBILBIDE HISTORIKOA

4/2005 Legeak erakunde publikoei bere jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatzeko betebeharra ezartzen die: berdintasun-planak, berdintasun-unitateak, berariazko aurrekontua, prestakuntza-sistema, estatistika egokiak, genero-inpaktu txostenak eta berdintasun klausulak dituzten kontratuak eta dirulaguntzak, besteak beste.

- d) **Eusko Jaurlaritzari dagokionez**, 2009tik aurrera sailtako berdintasun unitateak sortu ziren eta, zailtasunak zailtasun, sailtan berdintasun-politikak sustatzeko funtsezko eragileak dira.
- e) **Foru-erakundeei dagokienez**, aurrerapauso nabarmena izan zen Gipuzkoan (2015) eta Bizkaian (2018) berdintasunerako foru-arauak onartzea.
- f) **Udal-mailan**, Berdinsarea, EAE mailako Berdintasunaren aldeko udalen sarea sortu zen 2005ean eta bultzada handia eman zien udal-mailako berdintasun-politikei. 2015etik aurrera Berdinbidean programa abian jarri zen lurralde historiko bakoitzean (Aldundiek sustatuta) biztanle gutxiko udalerrietan berdintasun-politikak sustatzeko.
- g) **Azken urteetan feminismotik bultzatutako ekimenak**. Arrakasta eta oihartzun handia izan dute gizartean (#MeToo#, Martxa Arrosa, Martxoaren 8a, San Ferminetako talde-bortxaketa salatze jarduerak, Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak...) eta bultzada horrek erakundeetan ere eragina izan du. Adibidez, Berdintasunerako 4/2005eko Legea aldatzeko prozesua egiten ari da, besteak beste, gizartetik datozen errebindikazioei erantzuna emateko.

EAEko berdintasun-politikak nazioarteko tresna juridikoetan oinarritu dira eta beti **arazo sozial** moduan planteatu da emakumeen diskriminazioa.

Hala ere, arazo sozial horri aurre egiteko estrategiak aldatu dira, hasieran **ekintza positiboak** bakarrik planteatzen ziren. Hau da, politiken **helburua emakumeak** beraiek ziren, beren diskriminazio-egoera larrienak zuzentzea, alegia.

Estrategia hori nahikoa ez zela ikusi zenean, batez ere, 1995eko Beijingo Nazioarteko Konferentziatik aurrera estrategia osoago eta zabalago bat planteatu zen bestearen osagarri: **genero-zeharkakotasuna**. Horren ondorioz, politiken **helburua gizarte osoa** bilakatu zen, administrazioekiko lana areagotuz berdintasunaren ikuspegia politika guztietan txertatzeko eta gizarteko beste eragileekiko lana indartuz eskoletan, enpresetan, hedabideetan, gizonekin...

Azken urteetan, berdintasun politikek **erronka berriak** dituzte. Besteak beste, zelan bideratu eta gauzatu interseksionalitatearen ikuspegia, LGTBIQ+ mugimenduen aldarrikapenak, queer teoriak eta feminismoaren subjektuaren birplanteamendua.

2. LEGE-MARKOA: lege garrantzitsuenak; zer filosofiari erantzuten dioten; zer eremuri eragiten dioten eta zer betebeharrak ezarriak.

HIZKUNTZA-POLITIKAK

1. Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europar Gutuna:

- Estatu erakundeek Eremu Urriko hizkuntzetan oinarritutako zerbitzuak bermatzeko ahaleginak egin beharko dituztela jasotzen da.

2. Konstituzioaren 3. artikuluan 1. Apartatua:

3. artikulua 2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutoei dagozkien eran.

3. Euskadiren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa:

6. artikulua:

- Euskara, Euskal herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
- Autonomia Erkidego osorako erakundeek, hizkuntza bion erabilera bermatzeko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.
- Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

35. artikulua:

1. Magistratu, epaile eta idazkariak Aginte Judizialaren eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren lege organikoetan aurreikusitako moduan izendatuko dira, Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea lehentasunezko meritu izango direla eta sorlekua edo herritasuna dela-eta salbuespenik egin gabe.

4. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea:

6. artikulua:

- Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.
- Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie: a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz. b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotik izateko eskubidea. c) Aldizkariak eta irrati-telebistetakoa eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea. d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea. e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.
- 15. artikulua: Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmila guztietan. Horretarako, Legebiltzarrak eta

2. LEGE-MARKOA: lege garrantzitsuenak; zer filosofiari erantzuten dioten; zer eremuri eragiten dioten eta zer betebeharrak ezarriak.

Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

- 22. artikulua: Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea. Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino.
- 26. artikulua: Euskal herri-aginteei neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarri, gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek edozein motatako jarduerak euskaraz garatu ahal izateko.

5. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea:

- Euskara eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan.
- Administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitzak bere hizkuntz eskakizuna jarria izango du. Hizkuntz-eskakizunak zehaztuko ditu lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskerazko hizkuntz gaitasun-mailak.
- Baita derrigortasun data ere. Hizkuntz eskakizuna aginduzko izaten hasten den egunetik aurrera, lanpostu bakoitzera iritsi eta hori betetzeko ezinbestekoa izango da hizkuntz eskakizuna betetzea.
- Bazterte-indarreko saioetan inolako hizkuntz eskakizunik bete beharrik izango ez balitz, euskeraz jakitea merezimendutzat hartuko da.

6. 86/97 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia:

- Euskal Autonomia Elkartearen dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri-aginteei, nork bere esparruan, euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntz modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharrezko erabaki guztiak hartuko dituzte.
- Euskal herri-administrazioak beren zerbitzuan diharduten langileek hizkuntz gaitasun egokia lor dezaten saiatuko dira, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz.
- EAEko erakundeek euskara planak eginduz dituzte HPSren koordinaziopean.

7. Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea:

7.7 Artikuluan Eragin linguistikoaren Ebaluazioa egiteko agindua ematen du: "Udaletako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira".

8. 2003ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Legea:

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarriko eskubideak honako hauek dira:

2. LEGE-MARKOA: lege garrantzitsuenak; zer filosofiari erantzuten dioten; zer eremuri eragiten dioten eta zer betebeharrak ezarri.

f) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea lege honek eta ordenamendu juridikoaren gainerako legeek ezartzen dutenari jarraiki.

9. 123/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa:

Dekretu honen helburua honako hau da: kontsumitzaileekiko eta erabiltzaileekiko harremanetan, jendeari begirako enpresa, erakunde eta establezimenduen hizkuntza-betebeharrak zehaztea, ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzekoa, eta bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia jasotzeko eskubidea.

Dekretuak betebeharrak batzuk zehazten zizkien erakundeei. Laburbilduz, honako betebeharrak ezartzen zizkien erakunde desberdinei Bikaineko Erreferentzia Marko Estandarreko atalei buruz:

- Erakunde publikoak: euskararen eskaintza bermatu behar dute EMEko Zerbitzu Hizkuntzako atal guztietan.
- 250 langiletik gora dituzten enpresetakoak diren establezimenduak betiere urtean 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena badute, edo haien urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa bada, edo aurreko baldintza horiek betetzen dituen beste enpresaren batek haien kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiagoko partaidetza baldin badu, Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien trenbideko garraio publikoko zerbitzuak ematen dituzten tren-enpresak bidaiarien errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak energia elektriko hornitzen dituzten banaketa-enpresak edo merkaturatze-enpresak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei saltzeko, gas naturala merkaturatzen duten enpresak eta legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona juridikoen, edo unibertsaltasun eta berdintasuneko araubide juridikoaren pean dauden zerbitzuak ematen dituztenak: EMEko Zerbitzu Hizkuntzako atal guztiak 1.2.1. *Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta papeleria* izan ezik.
- Hiriburuetan edo elebidunen proportzioa % 33 baino handiagoa duten udalerrietan kokatuta badaude jendeari saltzeko gunearen azalera 400 metro karratutik gorakoa duten establezimenduak izatea, bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak 15 baino gehiago dituzten establezimenduak eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako merkataritza-establezimenduek, betiere kolektiboak badira, hau da, esparru edo eraikin beraren barruan hainbat saltoki badaude eta saltoki horietako jarduerak era independentean gauzatzen badira eta Euskal Autonomia Erkidegoan komunikazio-sareak ustiatzen dituzten komunikazio-operadoreak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jendearentzako telefono-zerbitzuak ematen dituztenak.. EMEko Zerbitzu Hizkuntzan gehiena bete behar dute; *Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta papeleria eta Produktua atalak* izan ezik
- Euskal Autonomia Erkidegoan jendeari begirako establezimendua duten kreditu-erakundeei, 10. artikuluan ezarritako baldintzetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten profesional, enpresa edo eraikuntza-obren sustatzaileek, Dekretu honetako 11. artikuluan ezarritako baldintzetan. Bezeroekiko/herritarrekiko idatzizko harremanak baino ez.

Arau-haustea eta zehapenak izeneko kapituluaren erantzukizuna. Kapitulu hori bertan behera utzi zen 204/2010 Dekretua argitaratu zenean. 2010ean jarri zen indarrean

2. LEGE-MARKOA: lege garrantzitsuenak; zer filosofiari erantzuten dioten; zer eremuri eragiten dioten eta zer betebeharrak ezarri.

dekretua, baina isun atalak urtebeteko luzamendua zeukan, enpresek egokitzeko denbora eduki zezaten. Bitarte horretan Patxi Lopez heldu zen Ajuria Enea, eta haren gobernuak isun atala dekretutik kentzea erabaki zuen. 2012ko otsailean kendu zuten atal hori, eta guk euskararen normalizaziorako prozesuan atzerapauso handizat jo genuen neurria. Zigor atalik gabe, ezartzen dituzten beharrak betetzea borondatearen menpe utzita, legeak ez dira lege, gomendio hutsak baino.

10. 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa:

1. artikulua Xedea.

Arau honen xedea da euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzionalak eta administratiboak arautzea Euskadiko toki-entitateetan eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea garatzeko eta, orobat, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko toki-administrazioekin dituzten harremanetan.

Hauek dira dekretuaren helburu nagusiak:

1. Herritarrei bermatzea dekretu honetako 2. artikuluan zerrendatutako entitateekin eta pertsonekin harremanetan jartzen direnean ofizialki erabili ahal izango dituztela euskara zein gaztelania, inolako diskriminaziorik gabe.
2. Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea tokiko administrazioan, euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa normaltasunez eta orokorrean erabil dadin.
3. Herritarrek euskara erabil dezaten zaintzea eta sustatzea.
4. Udalaren eremu sozialean herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeari dagokionez, benetako berdintasuna lortzea, horretarako behar diren ekintzak bultzatuz eta xede hori eragozten duten oztopoak ezabatuz.
5. Euskararen erabilera sustatzea Euskadiko toki-entitateetan eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan, jardun-eremu guztietan.

Dekretuak dakartzan ekarpen nagusiak:

- Hizkuntza politikan eskuduntza osoa aldarrikatzen zaie udalei. Izan ere, Estatuko gobernuak ordezkariek bere helegiteetan beti oinarritzen zen udalen kompetentzia ezean ordenantza batzuk (euskaraz lan egitea zekartenak) inpugnatzeko. Horrela, "blindatu egiten da euskaraz soilik lan egitearena euren kompetentzien barruan dagoela aldarrikatzen delako.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko irizpide batzuk ematen ditu, EAEko udal guztiek bete beharrekoak.
- Lan hizkuntza euskara bakarrik izatea bermatzen du legalki.
- Eskumen batzuk jasotzen ditu toponimian udalak.
- Euskararen zeharkakotasuna lantzen da Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) ezarri udal guztietan hirigintza proiektu nagusietan eta turismo planetan.

2. LEGE-MARKOA: lege garrantzitsuenak; zer filosofiari erantzuten dioten; zer eremuri eragiten dioten eta zer betebeharrak ezarri.

Horrez gain, arnaguneetan proiektu guztiei ezarri behar zaizkie ELEa; euskara erabat zeharkakoa bihurtzen da udal horietan.

BERDINTASUN-POLITIKAK

Araudi garrantzitsuenak:

- a) **Nazioartea:** NBERen Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak desagerrarazteko konbentzioa (1979). Emakumeen aurkako bereizkeria modu orokorrean arautzen duen eta ekintza positiboak espreski legitimatzen dituen lehen nazioarteko hitzarmena da.
- b) **Europar Batasuna:** Europar Batasunaren Tratatu eta Oinarrizko Eskubideen Gutuna. Bereizki garrantzitsua izan zen 1999 Amsterdameko Itunak ekarri zituen aldaketak: emakumeen eta gizonen berdintasuna EBren funtsezko printzipioa dela aldarrikatu zuen eta genero zeharkakotasuna aplikatzearen beharra ezarri zuen.
- c) **Espainia:**
 - 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrikoa. 250 langiletik gorako enpresek Berdintasun Plana izateko betebeharra eta entitate guztiek (tamaina edozein dela ere) sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa izateko betebeharra.
 - Real Decreto-ley 6/2019, de 1 de marzo, de medidas urgentes para garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación. 50 langiletik gorako enpresek Berdintasun Plana izateko betebeharra, modu progresiboan. 2020ko martxorako 150 langiletik gorakoek; 2021ko martxorako 100 langiletik gorakoek eta 2022ko martxorako 50 langiletik gorakoek.
- d) **EAE:** 1979ko Autonomia Estatutua eta 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari berdintasunaren arloan eskumen eskusiboa ematen dio eta 4/2005 Legeak herri-aginteei berdintasunaren arloan jarraitu beharreko printzipio eta estrategia nagusiak zehazten ditu, bai eta administrazio guztiek betebeharreko funtsezko obligazioak ere: **plana, egitura, aurrekontua, estatistika egokiak eta prestakuntza- sistema izatea, inpaktu-txostenak** egitea eta **berdintasun- klausulak** sartzea kontratuetan eta dirulaguntzetan, eta sexuen arteko **ordezkaritza orekatua** izatea.

Erakunde pribatuetan zuzenean eragiteko EAEk ez dauka ia eskumenik.

Legeak berak 5 urtean behin Legearen ebaluazioa egiteko betebeharra jasotzen du, betetze-maila eta inpaktua ezagutzeko. Ebaluazio hauek egin dira urte hauetan: 2005, 2008, 2010 eta 2015.

2. LEGE-MARKOA: lege garrantzitsuenak; zer filosofiari erantzuten dioten; zer eremuri eragiten dioten eta zer betebeharrak ezarriak.

- e) **Lurralde Historikoak:** 2/2015 Foru Araua emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa (Gipuzkoa) eta 4/2018 Foru Agindua, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa (Bizkaia). 4/2005 Legeak ezarritako aginduak zehazten eta garatzen dituzte, euren foru-eskumenei dagokienez.
- f) **Udal-maila:** hainbat udaletan emakumeen eta gizonen berdintasunerako ordenantzak onartu dira. 4/2005 Legeak ezarritako aginduak zehazten eta garatzen dituzte, euren foru-eskumenei dagokienez.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak 2019an arautu du **berrikuntza-sareko erakunde guztiek (ikerketa-zentroek, etab.) Berdintasunerako Planak** izan behar dituztela nahitaez. Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua aldatzen duen Dekretua, zientzia, teknologia eta berrikuntzako eragileei Berdintasunerako Plana edukitzea nahitaezko baldintza ezartzen diona.

3. POLITIKEN MISIOA, BISIOA, HARTZAILEAK, EREMUAU ETA ESTRATEGIAK

HIZKUNTZA-POLITIKAK

HIZKUNTZA-POLITIKEN HELBURUAK ETA IKUSPEGI OROKORRA:

- **Hizkuntzen arteko berdintasuna, herritarrek hizkuntza aukera berdina izatea, hizkuntza bizikidetzatza.**
- **Euskararen normalizazio soziala bermatzea eta euskal gizartearen elebitasun orekatua lortzea.**
 1. Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murriztuz.
 2. Euskara erabiltzeko aukerak eta guneak bermatu, zaindu eta sustatuz,
 3. Herritar bakoitzaren hizkuntzarekiko konpromisoak indartuz
- **Euskaraz ere lan egiten duen administrazio benetan elebiduna lortzea.**
 1. Herri-administrazioetako **langileak gaituz**, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarduteko.
 2. Euskararen **erabilera planen presentzia orokortuz**.
 3. **Euskara ere ohiko lan-hizkuntza** bihurtuz
 4. **Zeharkakotasuna. Euskararen kudeaketa-eredu berria euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratuz..**

HARTZAILEAK:

1. Administrazioak, lehenengo momentuan
2. Herritarrak, herritarren hizkuntza eskubideak helburu

ONURADUNAK: herritarrak

EREMUAU:

- Familia bidezko transmisioa
- Eskolako irakaskuntza
- Helduen euskalduntzea
- Administrazioa
- Gune geografiko euskaldunenak
- Arlo sozio-ekonomikoa
- Aisia eta kirola
- Liburugintza
- Kulturgintza

3. POLITIKEN MISIOA, BISIOA, HARTZAILEAK, EREMUAK ETA ESTRATEGIAK

- Publizitatea
- Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
- Hedabideak
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
- Euskararen aldeko motibazioa
- Sentsibilizazioa eta motibazioa
- Barruko proiektzioa
- Kanpoko proiektzioa

ESTRATEGIAK:

Gizartean:

- ESEP planak udaletan (Euskara Sustatzeko Ekintza Planak)
- Agenda Estrategikoa Jaurlaritzan
- Dirulaguntzak (udaletan, foru aldundietan eta Jaurlaritzan)
- Hitzarmenak eta bestelako formulak

Administrazioetan:

- Erabilera planak orokortzea
- Hizkuntza politikaren koordinazioa
- Araudi markoa egokitzea

BERDINTASUN-POLITIKAK

MISIOA: Emakumeek sufritzen dituzten diskriminazio mota guztiak desagerraraztea eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea gizarteko eremu guztietan EAEn.

BISIOA: Berdintasunezko gizartea lortzea, non pertsona oro libre izango den bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, hala eremu publikoan nola pribatuan, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat non berdina aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonek dituzten portaera, jomuga eta beharrianak.

3. POLITIKEN MISIOA, BISIOA, HARTZAILEAK, EREMUAK ETA ESTRATEGIAK

Helburu nagusiak berdintasun-planetan jasotakoak izan dira eta azken urteetako jardute-ardatz nagusiak hauek izan dira:

- ✓ Administrazioak gaitzea genero ikuspegitik lan egiteko.
- ✓ Emakumeen ahalduntzea.
- ✓ Gizartea eta ekonomia eraldatzea zaintza lanaren aitortza ekonomikoa eta soziala lortzeko.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea.

HARTZAILEAK: Gizarte osoari zuzendutako politikak izan arren, hartzaille nagusiak **administrazio publikoak** izan dira, batez ere, berdintasunaren arloan eremu pribatuan eragiteko EAEk ez duelako ia legegintza-eskumenik.

ONURADUNAK: Berdintasun-politiken eta horien aplikazioaren **onuradun nagusiak emakumeak** izan dira. Ordea, legeak herritar guztiei egiten die mesede, berdintasuna giza eskubideen arloko kontu bat delako eta herrien Gobernu Onerako eta garapen sozial eta ekonomikorako giltzarri delako.

EREMUAK: Izatez, bi jardute eremu nagusi daude: alde batetik, **administrazio publikoekin** egiten den lana, berdintasunaren aldeko egiturak sendotzeko eta politika publikoetan generoaren ikuspegia txertatzeko neurriak martxan jar daitezzen bultzatzeko; bestetik, **gizartearekin**, oro har, egiten den lana, emakumeen ahalduntzea bultzatuz, eskoletan eta enpreetan berdintasuna egotea sustatuz, emakumeekiko indarkeria prebenitzeko neurriak hartuz, diskriminazio kasuetan aholkularitza eta defentsa eskainiz, gizonak inplikatur bai eta gizartea berdintasunaren alde sentsibilizatuz ere.

ESTRATEGIAK. Estrategia bikoitza bultzatzen da:

- a) **Ekintza positiboa:** herri-aginteez denboran ondo mugatutako berriak neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.
- b) **Genero ikuspegiaren integrazioa (genero-zeharkakotasuna):** euskal herri-aginteez genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

HIZKUNTZA-POLITIKAK

EAE-MAILAN. SUSTAPEN-EGITURAK:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, HPS (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren barruan)

Hiru zuzendaritza:

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza.
- Euskara Sustatzeko Zuzendaritza.
- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza.

Egiteko nagusiak:

- Eusko Jauriaritzaren hizkuntza-politika artikulatzea eta jarraipena egitea, eta EAEko administrazio publikoek arlo honetan bete behar dituzten jardun-irizpideak ezarri eta garatzea.
- Dagokien erakundeetan jardun-irizpideak ezartzea, politika publikoetan eta kudeatzen dituzten administrazio-gai guztietan euskara bultzatzen laguntzeko.
- Organo eta zerbitzu guztiek sarean, koordinatuta eta modu osagarrian jarduten dutela bermatzea, HPSren zuzendaritzapean.
- Hizkuntza-politikaren arauak ezartzeko, aldatzeko edo aplikatzeko egiten dituzten proposamen orokorrak eta espezifikoak koordinatzea.
- Eusko Jauriaritzako sailek edo mendeko erakundeek egindako ikerketa soziolinguistikoak edo alderdi soziolinguistikoak jasotzen dituzten bestelako lanak koordinatzea.
- EAE osorako plangintza orokorra prestatzea eta baterako jardunak gauzatzeko planak formulatzea, Jauriaritzak onar ditzan.
- Hizkuntza-politikan eskumena duten botere publikoak elkarlanean aritzeko neurriak dinamizatu eta bultzatzea.
- Azaroaren 24ko 10/1982 Legea eta gainerako xedapen osagarriak egoki garatzen eta aplikatzen direla zaintzea.
- Hizkuntza normalizatzeko zereginetan, erakundeekiko harremanak izatea eta, euskal hiztunen komunitate osoa kontuan izanik, beste lurralde batzuetako era guztietako erakundeekin ere aritzea.
- Hizkuntza-eskakizunak zehazteko eta eskakizun horiek aplikatzeko proposamena egitea.
- Euskararen jakintza-mailari dagozkion titulu eta ziurtagiriak homologatzeko prozedura aurrera eramatea.
- Euskaratik beste hizkuntza batzuetara edo beste hizkuntza batzuetatik euskarara zinpeko itzultzaile eta interprete aritzeko gaikuntza profesionala lortzeko prozesuak kudeatzea.

HABE eta Etxepare Euskal Institutua autonomiadun erakundeak dira Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari atxikita daude.

HABE: 1983ean jarri zuen martxan Eusko Jauriaritzak HABE erakundea (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea). HABE erakundearen sorrerako helburua helduen euskalduntzea sustatzea da, euskara-ikastaroak euskaltegietan ikasteredu ezberdinetan antolatuz, izan aurrez aurreko ikas saioetan, edota internet sarea baliatuz, autoikaskuntzan: e-learning; edota jardun biko ikastaroetan: b-learning. Gaur egun 63 langile ditu erakundeak hiru hiriburu-tako bulegoetan banatuta. % 60 emakumeak dira eta % 40 gizonezkoak.

HABEren egitekoak:

- Helduen euskalduntzegintzarako curriculum landu eta egikaritzea.

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

- Euskara-irakasleen bizitza osorako prestakuntza.
- Langai didaktikoen taxutzea eta baliokidetzea.
- Baliabide didaktiko digitalen sorkuntza.
- Euskararen ikas/irakas prozesuen jarraipena eta ebaluazioa.
- Berariaz hizkuntzaritza aplikatuan eta hizkuntzen pedagogian espezializatutako liburutegi publikoaren zerbitzuak.
- Udal euskaltegi eta herri-ekimeneko euskaltegien jardunaren antolamendua eta finantzazioa.
- Euskararen ikaskuntzagatiko ikasleen matrikula doakoa izan dadin, euskara-ikasleentzat bideratutako dirulaguntzen deialdiak.
- Helduen euskalduntzegintzan diharduten beste erakunde eta gizarte-eragileekin lankidetzea.

ETXEPARE: Euskara eta euskal kultura munduan zehar zabaltzea du xede; euskararen eta kulturaren enbaxadore-lanak egiten ditu. Hizkuntzan eta kulturaren oinarritutako nazioarteko harremanak lantzen ditu, elkar ezagutza sustatuz. 12 lagun inguruk osatzen dute erakundea.

Euskararen Aholku Batzordea (EAB) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita dago Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, baina bere egitura organikoan txertatu gabe.

Euskararen Erabilpena Arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 29. artikuluan aurreikusi zen harreman-organoa da EAB: *Jaurlaritzak, euskararen erabileraren normalizazioa ahalbideratzeko, Lege hau gauzatu eta garatze aldera erakunde guztien lanak eta ahaleginak aztertu, bideratu eta bateratzea helburu izango duen topagune bat sortuko du.*

EABren helburua da hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzea, bideratzea eta koordinatzea.

Zeregin horretarako, besteak beste, kide anitzeko organo hauek izango ditu:

-Batzorde Osoa:

- Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Lehendakariordea: Kultura sailburua.
- Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- HABEko zuzendari nagusia
- EITBko zuzendari nagusia edo ordezkaria
- Ogasun eta Herri Administraz. ordezkaria
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa ordezkaria

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

- IVAPeko zuzendari nagusia
- Hiru foru-aldundietako ordezkari bana
- EUDEL) ordezkaria
- Euskaltzaindiko ordezkaria
- Gehienez ere berrogei kide, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artean hautatuak.
- Eusko Legebiltzarreko bost ordezkari
- Idazkaritza: HPS

Eusko Jaurlaritzaren barruan, bestetik, euskara-teknikariak edo Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikariak daude sailetan banatuta, euskara lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza izan dadin lan egiten. Sail hauetako Hizkuntza Normalkuntzako teknikariak:

- Lehendakaritza (2)
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
- Ogasuna eta Ekonomia.
- Hezkuntza Saila.
- Osasun Saila (4)
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
- Segurtasun Saila (3)
- Lan eta Justizia Saila.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia.
- EUSTAT
- Emakunde.
- Osalan
- Lanbide.
- Legebiltzarra
- Uraren Euskal Agentzia.

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

- Osatek
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
- IVAP

EAE-MAILAN. KOORDINAZIO-EGITURAK:

HAKOBA: EAEko erakundeen bilgunea herri-administrazioetan hizkuntza-politika koordinatzeko.

Parte hartzen dute: Eusko Jaurlaritza; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak; Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Udalak; Eudel udal elkarteak; eta UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak.

Jaurlaritzan, **HNTen Batzordea:** urtean lau aldiz edo biltzen dira, EJri dagozkion normalizazio kontuak koordinatzeko.

HERRIALDE-MAILAN. SUSTAPEN-EGITURAK:

- Aldundietako Euskara Zuzendaritzak.
- Gipuzkoan Euskararen Foroa
- Bizk.eus

HERRIALDE-MAILAN. KOORDINAZIO-EGITURAK:

- Udalekin (Gipuzkoan) eta Alkarbide (Bizkaian): udaletako euskara-teknikarien koordinazio eta elkarlanerako guneak. Araban Foru Aldundiaren inguruan

UDALERRIETAN. SUSTAPEN-EGITURAK:

- **Euskara Zerbitzuak** udalerri nahiz mankomunitateetan. Udalerri batetik bestera asko aldatzen dira zerbitzuaren osaera (lagun-kopurua eta lan-banaketa) eta funtzioak. Kasu batzuetan, beren funtzioa itzulpenak egitea izan da, beste batzuetan, kulturgintza... Udalerri handi-ertain batzuetan saila 4 pertsona inguruz osatuta, funtzio hauekin: ardura eta politika-orokorra, udal-barruko erabilera-plana, itzultzailea eta administraria; baina ez da ohikoena.
- **Udaleko Aholku Batzordea.**
Udalak ESEP definitzeko eta bere ezarpenerako Aholku Batzorde bat izendatu zuen Euskararen Aholku Batzordeak. Batzorde honen egitekoak:
 - Udalerriko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana definitzeko iritziak, aholkuak ematea.
 - Udalerriko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren urteroko jarraipena.Aholku Batzorde hori nola osatu udal bakoitzak erabakiko badu ere, HPSk zenbait gomendio luzatzen ditu. Adibidez, ondoko hauek har dezakete parte:
 - ✓ Lehendakaria: Udaleko alkatea / Euskara zinegotzia
 - ✓ Lehendakari-ordea: Udaleko Ogasuneko zinegotzia

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

- ✓ Idazkaria: Udaleko euskara teknikaria edo solaskide teknikoa
- ✓ Udal euskaltegirik balego, bertako arduraduna.
- ✓ Udalerrian hizkuntza normalkuntzan eragiten duten esparruetan esanguratsuak izan daitezkeen elkarten ordezkariak: guraso elkarteak; euskalduntze-alfabetatzen diharduten erakundeak; hezkuntza, kultura, aisialdi edo kirol elkarteak; merkataritza eta ostalaritza elkarteak; enpresen ordezkariak; komunikabideak...
- ✓ Era berean, egoki izan liteke hizkuntzaren normalizazioan sentsibilizazio berezia izan dezakeen herritarren bat, adituren bat gonbidatzea.

UDALERRIETAN. KOORDINAZIO-EGITURAK:

Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL) 1982an eratu zen udalen autonomia defendatzeko eta bestelako erakundeen aurrean toki bakoitzeko interesak ordezkatzeko. Bere Estatutuetan, honakoak daude jasota Elkartearen xede gisa:

- Udal autonomia bultzatu eta defendatzea.
- Erakunde politiko-administratiboetan elkareratatutako kideen interes orokorrak defendatzea eta ordezkatzeta.
- Euskadiko Udalen kohesiorako koordinatzea eta dinamizatzea, esperientziak trukatzeko, modernizazioa ahalbidetuko duten praktika onak hedatzeko eta euren eragina sendotzeko.
- Udal erakundeetan europar espiritua indartzea, Europako eta nazioarteko erakundeetan udalen partaidetza eta ordezkariak bultzatuz. EUDEL Euskadiko Udalen Elkarte

EUDELeko euskara zerbitzuak HPSri lagundu egiten dio koordinazio-lanetan.

UEMA, Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea:

Etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da. Euskararen arnasguneak biltzen ditu, hots, biztanleen %70ak baino gehiagok euskaraz dakiten udalerriak. 1991. urtean sortu zen eta gaur egun 82 udalerrik osatzen dute. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako udalak biltzen dituen mankomunitate bakarra da.

Herritarrek arlo guztietan euskaraz bizitzea posible izateko lan egiten du, euskara nagusi den lur-gunea erabat euskalduntzeaz gain, lur-gune euskalduna zabaltzea bultzatu nahi du.

Helburu nagusiak:

- Udaleri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- Udaleri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

-Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.

Zuzendaritza batzordea:

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Arabako ordezkari bat
- Bizkaiko bi ordezkari
- Nafarroako bi ordezkari
- Gipuzkoako bi ordezkari

Batzar Nagusia (erabakigune nagusia)

Batzar Nagusia UEMAko udaletako ordezkariak osatzen dute. Legegintzaldi bakoitzean, udal hauteskundeak eta gero, udal bakoitzak bere ordezkariak izendatzen ditu. Udalerriaren biztanle kopuruaren arabera banatzen da ordezkari kopurua ere.

BESO TEKNIKOA. PRESTAKUNTZA-ESKAINZA ETA -ESKAKIZUNAK:

Hizkuntza-normalkuntzako teknikari, euskara-teknikari, hizkuntza-aholkulari.. Hainbat izen erabiltzen dira.

Administrazioan, diplomatura edo lizentziatura eskatu izan ohi da, C1 edo C2 mailarekin. Lanpostu hauetan dauden langileek, ez dute zertan formaziorik izan ez soziolinguistikian, ez euskararen biziberritzean. Askotan, itzultzaile eta euskara-eskolen kudeatzaile-lanak egiten dituzte.

Hainbat udaletan funtzio ezberdinak betetzen dituzten langileak daude: zerbitziburua, itzultzailea, administrari, erabilera-planaz arduratzen dena. Urte askotako esperientzia duten hainbat teknikari daude.

BERDINTASUN-POLITIKAK

EAE-MAILAN. SUSTAPEN-EGITURAK:

- Emakunde

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

- Berdintasun unitateak Jaurlaritzako sail guztietan eta erakunde autonomoetan daude.
- Aldundietan eta udaletan, berdintasun-zerbitzuak edo sailak.
- Enpresa batzuetan ere bai.

EAE-MAILAN. KOORDINAZIO-EGITURAK:

- **Erakunde arteko Batzordea.**

Batzordea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago eta Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru-eta toki administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak koordinatzeko ardura duen organoa izango da.

Batzordekideak:

Eusko Jaurlaritzaren ordezkari lau pertsona, sailburuorde maila dutenak, honako alor hauen ardura dutenak: herri administrazioa, lana, gizarte gaiak eta hezkuntza. Dagozkien sailburuek izendatuko dituzte pertsona horiek.

– **Foru Aldundien ordezkari, alde batetik, pertsona bat, diputatu maila duena**, Aldundian horretarako agintea duen organoak izendatuko duena, eta, beste aldetik eta maila berberarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10. artikulua aipatzen duen eta foru aldundi bakoitzean **berdintasun-politika bultzatzeko ardura** duen organo edo unitateko burua.

– 6 pertsona, zinegotzi maila dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak ordezkatzeko dituen elkarteak izendatutakoak. Horietako hiru gutxienez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10. artikulua aipatzen duen eta dagozkion toki administrazioan berdintasun-politika bultzatzeko ardura duen organo edo unitateko buruak izango dira.

c) Idazkaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen idazkaria izango da, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango du. Bera ez dagoenean edo gaixorik egonez gero, batzordekiderik gazteena arituko da idazkaritza-lanetan.

2.– Erakunde arteko Batzordeak, aztertu beharreko gaiak kontuan hartuta, adituak eta gizarte interesen eta interes ekonomikoen ordezkari-erakundeetako kideak gonbida ditzake bere bileretara, haien iritzia berri jakin nahi duenean.

- **Indarkeriari buruzko erakunde arteko Jarraipen Batzordea.**

2001eko urriaren 18an, etxean tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei hobeto laguntzeko Erakunde arteko Hitzarmena sinatu zen, eta horren bidez indarrean jarri ziren 2000ko azaroaren 25ean sinatutako Erakunde arteko Protokoloan hartutako konpromisoak. Hitzarmen honek jarduera-prozedura homogeen batzuk ezartzen ditu, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimganako arretoa hobetzen dutenak eta haien osoko babesa bermatzen dutenak. Horretan, erakunde sinatzaileek hartuko konpromisoak eta esku hartzeko eremu bakoitzerako jardura-protokoloak sartzen dira, besteak beste; eremuak: osasun-

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

arloan, polizia-arloan, arlo judiziala, gizarte-arloan eta abokatuen elkargoak.

- **Sailarteko Batzordea**

Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan burutzen dituen jarduketak koordinatzeko organoa da. Batzordea Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago.

Osaera:

- a) Batzordeburua: Lehendakaria.
 - b) Batzordeburordea: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.
 - c) Batzordekideak:
 - Lehendakaritzako idazkari nagusia.
 - Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak ordezkari bat edukiko du Batzordean, hain zuzen ere, sailburuak izendatutako sailburuorde bat.
 - d) Idazkaria: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkaritza Nagusiaren titularra.
- Jaurlaritzan, Aldundietan eta udal batzuetan sail gehienak elkartzen dira berdintasuneko helburuak ezagutzeko, partekatze eta sail bakoitzari dagozkien zereginiei jarraipena egiteko.

HERRIALDE-MAILAN. SUSTAPEN-EGITURAK:

- Berdintasun organoak eta zerbitzuak Aldundietan.
- Berdintasun unitateak sortzeko bidean daude aldundi batzuetako departamentuetan.

HERRIALDE-MAILAN. KOORDINAZIO-EGITURAK:

- Departamentuen arteko batzordeak aldundi batzuetan.

UDALERRIETAN. SUSTAPEN-EGITURAK:

- Berdintasun organoak eta zerbitzuak, udalerrri handi eta ertainetan.
- Berdintasun kontseiluak. Herritarrak eta mugimendu feministak politika publikoen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan esku hartzeko partaidetza guneak.

4. ADMINISTRAZIOA

4.1. EGITURAK: SUSTAPEN- ETA KOORDINAZIO-EGITURAK

UDALERRIETAN. KOORDINAZIO-EGITURAK:

- Berdinsarea: EAE mailako koordinazio-egitura. Emakundek eta EUDELeK gidatuta. EAEko udaletako berdintasun-teknikariak biltzen ditu, batez ere.
- Berdinbidea: Aldundiek bideratutako programa, udalerrri txikiei berdintasun-politikak egiten laguntzeko; batez ere, aholkularitza-zerbitzua emanez, sareak sortuz eta trebakuntza eskainiz.

BESO TEKNIKOAK. PRESTAKUNTZA-ESKAINTZA ETA -ESKAKIZUNAK:

Lizentziadunak ala diplomadunak izatea eta gutxienez 150 orduko berdintasun ikastaroa izatea (unibertsitate batek edo Administrazioak ziurtatuta).

Oro har profesionalizazio-maila altua da. Masterra daukate.

Eusko Jaurlaritzan berdintasun teknikarien 3 lan-poltsa egon dira orain arte.

Etengabeko trebakuntzari dagokionez, IVAPek eskaintzen ditu berdintasunaren inguruan ikastaroak, batzuk oinarrizkoak eta besteak langileen profilen arabera.

Profesionalizazioa lortzeko ondoko aukerak daude:

- Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra: Berdintasun Agenteak (berriazko titulua) EHU.

Emakumeen kontrako indarkeriaren eskuhartzearen gaineko Masterra. (Deustuko Unibertsitatea)

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

HIZKUNTZA-POLITIKAK

ESEP:

Bi plangintza-mota daude. Bata, administrazio publikoen jarduera euskalduntzera bideratua, herritarren eskubideak betetzeko (plangintzaldiak), eta, bestea, gizarte-mailan euskara sustatzera bideratutako plangintza (ESEP).

(1) ESEP, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana:

1998. urtean, Euskararen Aholku Batzordeak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onetsi zuen, ESEPen aurrekaria. 2008-2009an Euskara 21 izeneko gogoeta-prozesuaren bidez EBPN berrikusi zen eta 2009. urtean, Eusko Legebiltzarrak onarpena eman zion Euskara 21 prozesuaren emaitzari. Emaitza «Itun berri baterantz» dokumentuan bilduta dago. Bide horretan sortu zen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Euskararen Aholku Batzordearen hilabeteetako lanaren ondoren.

ESEPen esparruak eta zehar-lerroak:

Hiru helburu estrategiko:

- **Euskararen jabekuntza (ezagutza)**
 - **Familia bidezko transmisioa:** Gaur egungo egoera: familiaren bidez euskara geroratzeko aukera gero eta sendoagoa da. Etorkizunerako erronkak: adierazle bidezko neurgailu egokia landu.(EUSTATEK)
 - **Eskolako irakaskuntza:** Gaur egungo egoera: Irakaskuntzaren eremuan euskararen indartze-prozesua azpimarragarria da; salbuespen bakarra: lanbide heziketa. Etorkizunerako erronkak: 1) Ikastetxe bakoitza osatzen duten kideen arteko harremanak (ikasleak, hauen gurasoak eta profesionalak) euskaraz ere izatea. 2) Ikastetxearen eta ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak azkartuko dituzten proiektuak eta egitasmoak bultzatzea. 3) Lanbide heziketan, aztertzea lanbide heziketako ikasleek nola irudikatzen duten euskararen eta lan munduaren arteko lotura.
 - **Helduen euskalduntzea:** Gaur egungo egoera: euskalduntze-alfabetatzeak irauli du euskararen patua. Etorkizunerako erronkak: 1) HABE eta euskaltegien arteko elkarlana sustatu. 2) Euskal hiztun berriak sortzea eta euskal hiztunen artean erabilera esparruak zabaldu eta indartzea. 3) Euskara etengabeko prestakuntzaren esparrura ekartzea. 4) Euskara ikasteko erraztasunak eman eta egokiak diren baliabideak aurreikustea.
- **Euskararen erabilera**
 - **Administrazioa:** plangintzaldiak (ondoren zabalago azalduta)
 - **Gune geografiko euskaldunenak:** Gaur egungo egoera: gune euskaldunenak euskararen birrikak dira. Etorkizunerako erronkak: Errealitate ezberdinek tratamendu ezberdinak behar dituzte; herri administrazio guztiak eskaintzen dituzten zerbitzuetan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izango dela bermatzea; euskaraz ez dakiten herritarrei erraztasun guztiak eman behar zaizkie euskara ikasteko eta euskalduntze prozesuaren parte garrantzitsua direla sentiarazteko; arreta berezia merezi dute, beraz, gune erdaldunetako euskaldunek eta gune euskaldunetako erdaldunek, nolabaiteko elkarrekotasuna oinarri.

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

- **Arlo sozio-ekonomikoa:** dirulaguntzak enpresek euskara-planak egiteko, Bikain ziurtagiria. Gaur egungo egoera: egonkortu egin da euskara planak garatzen ari diren enpresen kopurua. Etorkizunerako erronkak: 1) Ahalegin handiak egitea komunikazioaren eta sentsibilizazioaren aldetik, eta ahaleginok erakunde eta eragileen artean adostu eta koordinatzea. 2) Bezeroekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukera bermatu eta sustatzea. 3) Enpresa-praktikak euskaraz egiteko aukerak bultzatzea.
- **Aisia eta kirola:** Gaur egungo egoera: gora doa euskararen erabilera. Etorkizunerako erronkak: eskolaz kanpoko jarduerak, eta jendaurreko ekitaldi eta agerpenetan, mezuetan euskararen presentzia bermatzea; horretarako, hiru lan-ildo nagusi daude: 1) Berriazko materialen sorkuntza eta hedapena. 2) Begiraleak zein entrenatzaileak trebatzeko eta haietzako titulu ofizial eta ez-ofizialak lortzeko ikastaroak. 3) Sentsibilizazio kanpainak eta zabalkunde orokorra zein herri mailakoa egitea
- **Euskararen elikadura**
- **Liburgintza:** Gaur egungo egoera: euskaraz argitaratzen diren liburuen kopuruak hazkunde nabarmena izan du azken urteetan. Etorkizunerako erronkak: 1) Hazkunde hori irakurleei eta kultura beharrei egokitu eta doitzea. 2) Kontsumoa neurtzeko irizpideak finkatu eta azterlanak egitea. 3) Laguntza publikoekiko beregaintasuna. 4) Itzulpen politika aztertzea: adin segmentuak eta euskal literatura beste hizkuntzetara itzultzea.
- **Kulturgintza:** Gaur egungo egoera: Haurrak eta gazteak dira euskarazko kulturaren hartzaile potentzial nagusiak; helduentzako eskaintza nahiko ahula da. Etorkizunerako erronkak: 1) Aukerak areagotu behar dira. 2) Euskaraz ez dakitenei euskarazko ekoizpenaren berri jakinaraztea. 3) Euskarazko kulturak beregaina izan behar du.
- **Publizitatea:** Gaur egungo egoera: Euskara gutxi erabiltzen da publizitatean eta, erabiltzen denean, gaztelaniaz sortutako leloen bertsio mimetikoak izaten dira euskarazkoak; euskaldun gazteek kontsumitzen duten guztia euskaraz iragar daiteke. Etorkizunerako erronkak: Euskaraz sortu behar du publizitateak, literaturak edo beste arteek bezala. Euskarazko publizitate gehiago behar dugu, eta euskararen publizitate gutxiago.
- **Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea:** Gaur egungo egoera: Corpusetan oinarritutako lan lexikografiko zein terminologikoan aldaketa nabarmenak gertatu dira azken boladan. Etorkizunerako erronka: Hizkuntza modu integralean garatzea, eta aldi berean, komunikagarritasuna
- **Hedabideak:** Gaur egungo egoera: Hedabideak sektore estrategikotzat jo izan dira beti hizkuntzaren normalizazioaren bidean. Etorkizunerako erronkak: Ereduaren birplanteamendua egitea. Lehentasunen artean: gazteei zuzendutako eduki eta kanalak bultzatzea, komunikagarritasunaren bidetik estilo serioak eta arinak konbinatzea eta ikus-entzunezkoei arreta berezia eskaintzea. Internet bidezko albistegiak, eta hedabideen edizio elektronikoak.
- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak:** Gaur egungo egoera: Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen presentzia sendotuz joan da; gero eta tresna teknologiko gehiago dago euskaraz, eta euskal blogosfera nahiko aktiboa da; sare sozialetan ere sartzen ari da euskara pixkanaka; IKTetan euskararen erabilera kalean sumatzen denaren tamainakoa edo are altuagoa da. Etorkizunerako erronkak: Hizkuntzen kudeaketaren alorreko enpresen elkarteak sortu da berriki, Langune izenekoa. Hizkuntzen industriak herri-administrazioen babesa beharko du hasierako fase honetan. Oinarrizko baliabideak eta tresnak behar ditu. Horiek euskaraz garatzeko eta eguneratuak izateko ekimen eraginkorrak bultzatzea.

Helburuak lortzeko zeharlerroak:

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

- **Euskararen aldeko motibazioa**
 - Sentsibilizazioa eta motibazioa: Gaur egungo egoera: euskararen aldeko motibazioaren inguruko saioak ugalduta egin dira; Motibazioak lotura estua du hizkuntzak ikastearekin eta, bereziki, haien erabilerarekin. Etorkizunerako erronkak: Hizkuntza ikasteko motibazioan eragitea. Euskara erabiltzeko argudioak ematea. Hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzea. Hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea. Soziolinguistikari buruzko oinarriko azalpenak gizarteratzea. Hizkuntza ezagutzetik erabiltzera dagoen jautzia egiten laguntzeko lantegiak antolatzea. Lidergoa lantzea hizkuntzen normalizazioaren alorrean, etab.
- **Euskararen zabalkundea:**
 - Barruko proiektzioa: Gaur egungo egoera: euskaraz gauzatzen diren ekimenen eta euskaraz sortzen diren produktuen proiektzioak eragin erabakigarria du euskararen eta euskal kulturaren irudian; oraindik hedapen handiagoa behar da. Etorkizunerako erronkak: 1) Kalitatezko produktuen oinarrian euskal kulturaren irudia prestigiatzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dugu. 2) Elebitasun pasiboaren ikuspegitik, euskarazko kultur ekoizpenen zabalkundeak erdielebidunen (elebidun pasiboen) kopurua handitzea eta haien elebitasun osorako zubia eraikitzea.
- **Kanpoko proiektzioa:** Gaur egungo egoera: Etxepare Institutua; Europa eta Ameriketako 32 unibertsitatetan irakasten da euskara; euskara irakasteaz gain, lektoreek euskal kulturaren berri ematen dute; Euskara Munduan programa. Etorkizunerako erronkak: 1) Euskararen eta euskal kulturaren proiektzioa nazioarteko foroetan parte hartzea. 2) Euskarari eta euskal kulturari buruzko informazioa atzerrian proiektatzeko ezinbestekoa da materialak zein datuak nazioarteko hizkuntza hedatuenetan ere eskaintzea.

ESEPen helburu eta printzipioak:

Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera indartzea izango da. Ezinbesteko baldintza: herritarren euskararekiko atxikimendua

Hiru zutabetan oinarritzen da:

- Hizkuntza eskubideen aitopena eta babesa.
- Euskararen hiztun-elkartearen dimentsioa bera.
- Euskararen eta euskal kulturaren erakargarritasuna.

Elebitasun orekatua, hizkuntza-hautua egiazki bermatzeko baldintza.

Euskararen biziraupena bermatuta dago; euskararen bizi-indarra da handitu behar dena.

PLANGINTZALDIAK EDO ERABILERA-PLANAK:

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

Administrazio publikoen jarduera euskalduntzera bideratua, herritarren eskubideak betetzeko.

Euskararen normalizazio-prozesuaren ibilbidea erakunde publikoetan (erabilera-planak):

Badira hainbat hamarraldi erakunde publikoek euskara normalizatzeko eta garatzeko bideari ekin ziotela. Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteen esku utzi zuen zeregin hori eta 10/1982 Euskararen Legean zehaztu ziren herritarren hizkuntza-eskubideak eta herri-aginteen hizkuntza-betekizunak. Funtsean, Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunderekin harremanak euskaraz nahiz gaztelaniaz izateko eskubidea aitortzen die legeak herritarrei, eta herri-aginteei, berriz, euren jarduera bi hizkuntza ofizialetan garatzeko betebeharra.

Horrela, eskubide eta betebeharrak egikaritu ahal izateko, sortu ziren administrazioetako plangintzaldiak. I. Plangintzaldia 1990. urtean abiatu zen eta egun VI. Plangintzaldia dugu indarrean. Ibilbide horretan, hiru aro nagusi bereiz ditzakegu:

1. Itzulpengintzaren aroa. Normalkuntzaren bidean, lehen egitekoa izan da euskara erabilera-eremu berrietara egokitzeko (kasu honetan, administraziora) corpusa sortzea: terminologia, ereduak... Corpus hori itzulpengintzaren bidez garatu da hein handi batean, eta itzulpenen bidetik bermatu da nagusiki bi hizkuntza ofizialen erabilera administrazioan.
2. Hizkuntza-gaitasunaren aroa. Funtzio Publikoaren Legeak administrazioko lanpostuei hizkuntza-eskakizuna ezartzen dienean ekiten zaio bigarren aro honi, 90eko hamarkada inguruan. Aro honek administrazioko langileengan jartzen du begirada, langile horien hizkuntza-trebakuntzan, eta helburu nagusia da langile publikoak trebatzea lanean euskaraz aritzeko.
3. Erabilerearen aroa. Hizkuntza-gaitasuna beharrezkoa da euskaraz lan egiteko, baina ez da nahikoa. Normalizazio-bide luze horretan esparru askotan ondorioztatu dugu gaitasunak ez duela erabilera bermatzen, eta beharrezkoa dela bestelako neurriak hartzea eta baliabideak jartzea euskara egunerokoan erabiltzeko. Bide horretatik landu dira erakunde publikoetan hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko irizpideak, jarraibideak, dekretuak... eta tresnak jarri dira horiek ebaluatu eta segimendua egiteko.

Azken urteetan, laugarren aro edo paradigma bati buruz hitz egiten ere hasi da. Izan ere, erabilera-planen garapenean, kudeaketan eta ebaluazio-tresnetan jauzi baten beharra atzematen da. Orain arte egiteko hori Euskara Zerbitzuena izan da batez ere, eta zerbitzu hori arduratu da planen diseinuaz, garapenez eta ebaluazioaz. Hizkuntza zeharlerro den neurrian, ordea, beharrezko ikusten da kudeaketa paradigma horretatik elkarrekintza paradigma batera igarotzea; paradigma berri honen arabera, hizkuntza-politikaren ardurak partekatua behar du izan eraginkorra izateko eta, beraz, administrazioko eragile guztiek hartu behar dute aktiboki parte plangintzan. Euskara Zerbitzuaren egitekoa gehiago litzateke akuiluarena, dinamizazioarena, bidelagun izatearena.

Deskribatu berri ditugun hiruzpalau aro horiek ez dira, noski, aro itxiak, hau da, hasiera- eta bukaera-data jakina duten aroak. Badago nolabaiteko garapen-sekuentzia batetik bestera, eta abian jarri diren unek kronologia jakin bati erantzuten diote hein batean. Baina gaur egun guztiak elkarrekin ari dira garatzen seguruenik erakunde publiko gehienetan, garapen-mailari dagokionez desberdintasunak egon arren batetik bestera. Hau da, itzulpengintzaren eta gaitasunaren paradigma ez ditugu erabat gainditu oraindik erakunde gehienetan, oro har, euren indarra gutxiagotzen joan bada ere. Edonola ere, erakunde publikoen errealitatea oso anitza da, eta erakundearen

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

edo atalaren arabera egoera oso desberdinak topa ditzakegu.

Eusko Jaurlaritzara etorrira, azpimarratzekoa da batez ere lehen bi aro edo paradigma horietan egin den ahalegina eta lortu den jauzia hamarkada hauetan guztietan. Gaur egun Eusko Jaurlaritzako langileen % 55ek du bere hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta. Ez da nahikoa, baina erabileraren eremuan lan egiteko oinarri sendoa eskatzen du. Horri esker, euskara zerbitzu-hizkuntza izateko urrats esanguratsuak egin dira.

Hizkuntza-politikaren ibilbidea labor eta eskematikoki:

I. Plangintzaldia (1990-1995): herri-administrazioetako **langileak gaitzea**, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarduteko; garai horretan finkatzen dira, besteak beste: hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak.

II. Plangintzaldia (1997-2002): euskararen **erabilera planen presentzia orokortzeko apustua**. 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ekarri zien euskal herri-administrazio guztiei: **hizkuntza planifikazioa abian** zen.

III. Plangintzaldia (2003-2007): **oinarri teoriko sendoak** euskararen erabilerak administrazioan gora egin zezan: herri-administrazio atalak eta lehentasunak definitu ziren, AEBEMET metodologia, hizkuntza normalizatzeko neurriak, hizkuntza 7 SARRERA ofizialak erabiltzeko irizpideak... Administrazioa gero eta euskaldunagoa, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten; erabilera bilakatu zen erronka nagusia.

IV. Plangintzaldia (2008-2012): **euskara ere ohiko lan-hizkuntza** bihurtzeko ahalegina: azterketa komunikatiboak, berariazko hizkuntza prestakuntzaren garrantzia, kudeaketarako antolakuntza-egiturak eta abar, betiere bi hizkuntza ofizialak maila berean erabiltzeko aukera bermatzeari begira.

V. Plangintzaldia (2013-2017): **euskara ere ohiko lan-hizkuntza**. Garai horretan, herri-administrazioetako langileak gai dira, gehiago edo gutxiago, euskaraz lan egiteko eta, neurri handi batean, herritarrekiko euskarazko komunikazioak bermatzen dituzte, baina, oraindik ere gaztelania da lan-hizkuntza nagusia, eta itzulpenekiko mendekotasuna itzela da.

VI. Plangintzaldia (2018-2022): **euskararen kudeaketa-eredu berria euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeko**. Euskararen kudeaketak erakundearen kudeaketa orokorraren barruan egon behar du txertatuta: ezin daiteke geratu kudeaketa orokorretik kanpo. Aldi berean, erakundearen helburu nagusiek uztartuta egon behar dute euskararen erabileraren normalizazioarekin, ondo lerrotatuta, prozesua arrakastatsua suertatuko bada. Hamarkadaka edo une historikoekin lotuta.

INFORMAZIO-ITURRIAK:

Euskararen Adierazle Sistema:

Euskararen egoera sozialaren berri ematen duen adierazle sorta da Euskararen Adierazle Sistema (EAS). Ildo horretatik, gizartearen esparru desberdinetan hizkuntzak une jakin batean duen zabalkundea eta denboran zehar izaten ari den bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko balioko duen erreminta izan nahi du.

Euskararen Adierazle Sistema (EAS) Euskal Herri osoko euskararen egoera sozialaren berri ematen duen adierazle sorta da. Ildo horretatik, gizartearen esparru

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

desberdinetan hizkuntzak une jakin batean duen zabalkundea eta denboran zehar izaten ari den bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko balioko duen erreminta izan nahi du.

2013an jarri zen martxan eta geroztik bi fase izan ditu: lehen fasea (2013-2014) diseinua eta egituraketaren fasea, eta, bigarrena (2015-2017), proiektuaren exekuzio fasea. Lehen emaitza eragile bakoitzak duen webgunean argitara emandako EAS web-a da.

Azken fase honetan EASK 33 adierazle biltzen ditu: Estatus Juridikoa (kualitatiboa) eta izaera kuantitatiboa duten beste 32 adierazle, ezagutza eta erabilera bereiziz. Eremu honetako datuak biltzen dira, besteak beste: gaitasuna, jabekuntza, hezkuntza, administrazioa, sozio-ekonomia, kultura, harreman informalak, ingurune digitala eta sozio-demografia.

2015-2017 bitartean, FEDER Europako finantzazioaren bitartez, POCTEFA europar proiektua izan da.

EASren Batzorde Sustatzailea euskararen lurraldearen Administrazio nagusiek osatu dute: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zuzendaritzak, Nafarroako Gobernuako Euskarabideak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Adierazleok era planifikatuan, sistematikoan eta era iraunkor eta antolatuan datuz elikatu eta eguneratuko dira.

Eremu geografikoari dagokionez, Euskal Herri osoa du jomuga, ahaztu gabe egungo mundu globalizatuak muga geografikoak askotan gainditzen dituela.

Euskararen Adierazle Sistemaren partaideak honako erakunde hauek dira: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoa, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Era berean, Europako Batzordeak, Erregio Garapenerako Europar Fondoaren (FEDER) Diru-funtsaren bidez kofinantzatu du egitasmoa.

Hauek neurtzen ditu: euskararen estatus juridikoa; euskara-gaitasuna, erabilera eta jarrera; familia, hezkuntza eta helduen euskalduntzea; adierazleak arloka (administrazioa eta oinarrizko zerbitzuak, sozioekonomia, kultura, harreman informalak eta aisialdi antolatua, ingurune digitala, soziodemografia).

- **Eustat Enplegua...** lehenengo aldiz euskararen aldagaia txertatu da.

Biztanleriaren Jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta eragiketa informazio-iturri etengabea da Euskal Aeko lanindarraren ezaugarri eta dinamikaz. Familien etxebizitzetan bizi den biztanleriaren jarduera produktiboari buruzko informazioa biltzen da, baita biztanleria horrek lan eremuan jasan dituen aldaketak ere. Gainera, biztanleria aktiboaren bilakaerari buruzko aldakuntza-adierazleak egiten ditu hiru hilabete behin, eta ekonomikoki produktiboak ez diren jardueretan biztanleriaren parte-hartzea kalkulatzeko da hemen. Informazioa ematen du lurralde historiko eta hiriburuei begira.

- **Eustat: familia-hizkuntza...**

Euskal Aeko biztanleriaren eta familien gaineko ezagutzak eta kuantifikazioak zenbait estatistika-iturri behar dituzte. Alde batetik, hamar urtez behin biztanleriaren eta familien kontaktak egin dira Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuaren bidez, baita ere Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikak (BEE) zentsuen arteko aldirian. Bestaldetik, Biztanleen udal estatistika bidez eta iturri nagusi gisa Biztanleen Udal Erroldako erregistro administratiboak erabiliz gaurkoturik edukitzen da udal informazio

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

demografikoa.

- **Kale Erabileraren Neurketa:**

Euskal Herriko Kale Neurketak, Euskal Herri osoan, eremu publikoan, “kalean”, euskararen ahozko erabilera neurtzen du. Estreinakoz 1989an egin zen neurketa hori, geroztik lau urtean behin errepikatu da. Informazioa osatu. 4 urtean behin, SL Klusterrak, sexuaren aldagaia txertatuta.

- **Inkesta Soziolinguistikoak** euskararen ezagutza, erabileran eta familia-transmisioan sakontzen du, eta hura sustatzen. Inkesta honen helburua da pertsonen arteko hizkuntza-elkarreraginaren erabilerari buruzko informazio estatistiko ofiziala lortzea. Bost urtean behin egiten zaie 15 urtetik gorako herritarrei. HPSk egiten du, euskararen ezagutza eta erabilera aitortua jasotzen du, inkesta bidez.

- **Mapa soziolinguistikoa:**

Lehen-hizkuntzaren arabera hizkuntza-gaitasunaren bilakaera eta etxeko euskaldunen dentsitatearen arabera euskararen etxeko erabileraren bilakaera ezagutzea, bai eta gurasoen hizkuntza-tipologiaren arabera familia bidezko transmisioarena ere; bilakaera lurralde-eremuaren (EAetik auzoraino) eta jatorriaren arabera ikusiko da, eta adinari jarraiki.

BERDINTASUN-POLITIKAK

PLANGINTZARIK GARRANTZITSUENAK:

Administrazio Orokorra

Emakunde sortzeari buruzko Legearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, Emakunde behartuta dago legegintzaldi bakoitzaren hasieran Plan Orokor bat egitera, non Euskal Autonomia Erkidegorako berdintasun-politiken jarraibide orokorrak jasoko diren. Tokiko erakundeentzako plan gidaria da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak **euskal botere publikoen jarduera gidatzen du berdintasunaren eremuan**. EAeko botere eta administrazio publiko guztiek aplikatu beharko dute; hala, planean zehaztutako esku hartzeko ildoekin bat, berdintasun arloko jarduera-plan eta programak osatu beharko dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Saitetako eta erakunde autonomoen berdintasun-planak

Autonomia Erkidegorako plana garatuz, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta horiei lotutako edo atxikitako erakunde autonomiadun beren jarduera plan edo programak egin behar dituzte. Saitetako berdintasun-planak onartu baino lehen, planei buruzko txostena egin behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak.

Foru eta Tokiko Administrazioa

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

Honekin batera, VI. Planean ezarritako esku-hartze ildoekin eta jarraibideekin bat etorritik, udalek eta aldundiek berdintasunerako planak edo programak onartuko dituzte, eta horien sailetan, eta horiei lotutako edo atxikitako erakunde autonomiadun eta bestelako ente publikoetan planak eta programak eraginkortasunez eta koordinatuta gauzatu daitezkeen berrantolakuntza dute, behar diren baliabide material, ekonomiko eta giza baliabideen bitartez.

Udaletako eta aldundietako **berdintasun-planak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera bidali behar dira, Emakundeek planei buruzko txostena egin dezan, Udaleko Osokoa, edo aldundien kasuan, dagokion organoan onartu baino lehen.**

Toki erakundeei berdintasunaren alorrean laguntzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak diru-laguntzetarako deia egiten du urtero, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosiak eta/edo berdintasunerako planak sortu eta egokitzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko.

Plan hauek egin, kudeatu eta ebaluatzeko, gomendatzen da “Tokiko Berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida”, Berdintasunaren markoan egindakoa.

PLANGINTZEN HELBURU ETA EDUKI NAGUSIAK:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana dago indarrean eta hauek dira planaren ardatz nagusiak:

1. **Gobernu ona:** Erakundearen barrura begirako eremua. Genero-ikuspegia txertatzea antolakuntza eta jardueraren guztian

Eskuhartze-ardatzak berdintasunaren arloan:

- I. **Emakumeen ahalduntzea:** Emakumeengan ardatzutako eremua. Ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa.
- II. **Ekonomiak eta gizartearen antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko:** Ingurune sozioekonomikoari dagokion eremua. Eredu sozial iraunkorrago eta berdinezaleago bat lortzeko.
- III. **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.** Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, berronartzea eta erakundearen arteko koordinazioa. Arreta jartzen da, batetik, prebentzioan, eta, bestetik, bizirik jarraitzen duten biktimei arreta integrala ematean (erabat oneratzeko diren arte).

Instituzio bakoitzak bere eremura egokitu behar ditu lan-ildo horiek, bere eskumenaren arabera.

Instituzioek egiten dituzten Berdintasun Planek **bi eremuetan eragina daukate:**

1. Administrazioaren jardueran, langileengan, prozeduretan...
2. Gizartearengan

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

Enpresetan egiten diren Berdintasun Planek bi eremuetan:

1. Langileen baldintzetan eta erakundearen kulturean.
2. Enpresak ematen duen zerbitzuetan

Emakundek prozesuak eta tresnak estandarizatuta ditu, eta, alderdi hauek aztertu eta landu ohi dira enpresetan, besteak beste, erakundearen kultura, berdintasunarekiko sentsibilizazioa, segregazio bertikala eta horizontala, langileen osaera eta ezaugarriak (adina, jatorria, antzintasuna dena sexuaren arabera), ordainsari-sistema eta soldadak, hautaketa-prozesuak eta barne-promozioak, trebakuntza, laneko osasuna eta arriskuak, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, azpikontrataturako zerbitzuak eta horien osaera sexuaren arabera, komunikazioa, enpresaren jardueran genero-ikuspegia, etab.

DIAGNOSTIKOAK:

Instituzioetako diagnostikoetan, oro har, bi eremu aztertzen dira: batetik, **jarduera administratiboan genero ikuspegia noraino txertatuta dagoen**. Bestetik, **genero-arrakalak gizarlean** (instituzioaren eskumenaren arabera).

Era berean **enpresa moduan ere** egiten dira planak instituzioetan (lantzen diren gaiak goian daude jasota).

INFORMAZIO-ITURRIAK:

Instituzioek diagnosiak egiteko honako informazio-iturriak erabiltzen dituzte:

- **Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin**

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak txostena urtero egiten da, eta euskal gizartearen esparru sozialean, ekonomikoan eta politikoan emakumeen eta gizonen errealitatea gaur egun zein den jakiteko aukera ematen du.

- **EUSTATen webeko "Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren Atala"**

Honen helburu nagusia honako hau da: Euskal Estatistika Antolakundean sortutako informaziorik jakingarriena biltzea, genero-ikuspuntutik.

- **Emakume eta gizonen arteko berdintasun txostena 2019**

EAEko emakume eta gizonen arteko berdintasun txostenak genero-analisiarentzat esanguratsuak diren informazio estatistiko ofizialak bildu eta erakusten ditu, eta grafiko-interaktiboak dauzka. Atalak Europako genero berdintasun indizearen dimentsioekin bateragarriak dira eta datuek emakume eta gizonen egoera erakusten dute Indizearen gai nagusietan.

4. ADMINISTRAZIOA

4.2. PLANGINTZA OROKORRAK: plangintzarik garrantzitsuenak, helburuak eta edukiak

- **Ikerketa eta estatistika sektorialak**

Instituzio bakoitzaren eskumenaren arabera ikerketa eta estatistika propioak erabiltzen dira berdintasunerako diagnosiak osatzeko.

- **Instituzioaren langileriaren kudeaketari buruzko iturri propioak:** datu-baseak, eta abar...

PLANGINTZEN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA:

Emakundek sorrarazteari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluari jarraikiz Emakundek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan herri-agintaritzek izan duten jokabideari buruzko txostena prestatu beharko du. Horregatik eta horretarako:

- Emakundek jarraipen-sistema **mekanizatua eta telematikoa** du, inplikaturako erakundeen informazioa erraz eta azkar biltzeko.

<https://www.emakunde.euskadi.eus/politika-publikoak/-/informazioa/politika-ebaluazioak/>

- Urtearen amaieran, Emakundek **baterako analisia egingo** du eta EAEko erakundeek emandako informazio guztia aztertuko du, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plangintzari lotutako euskal herri-aginteen jarduerari buruzko aipaturako memoria egiteko xedez.

- Berdintasunerako VII. Plana ezartzeko denboraldia amaitzen denean, Emakundek **planaren betetze-mailari buruzko ebaluazioa egingo du.**

Instituzio bakoitzak (Eusko Jaurlaritzako Sailek, udeletxeek, Aldundiek ere bere Planen jarraipen eta ebaluazio propioa ere egiten dute).

4. ADMINISTRAZIOA

4.3. BERARIAZKO POLITIKAK: zer eratako berariazko politikak garatu dira?

HIZKUNTZA-POLITIKAK

Historikoki hemen aipatzeko modukoak dira herri honek Corpusean egindako lana. Normalizazioaren oinarria izan zena.

Bestetik, corpusaz gain bestelako politikak ere egin dira: Ikerketak, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ekimenak (lan-munduan, hezkuntzan, helduen euskalduntzea, erabilera areagotzeko ekimenak...

BERDINTASUN-POLITIKAK

Berariazko politikak emakumeen ahalduntzera egon dira bideratuak, nagusiki. Horren adibide, foru- eta toki- administrazioetan Emakumeen etxeak eta ahalduntze eskolak izan dira.

Emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako politikek ere garrantzia izan dute, aldundi eta udalei dagokienez.

Baita ere gizonei bideratutako programak sustatu dira (GIZONDUZ). Maskulinitasunaren inguruan hausnarketa bideratzeko.

EAEko administrazioan Emakundeek dirulaguntzak eta aholkularitza zerbitzua ematen die emakume elkarteei. Horrez gain, emakume elkarteen aholku batzordea kudeatzen du.

Berdintasun politikekin eta erakundeekin kritikoagoak diren elkarteekin eta taldeekin oro har Emakundeek ez du interlokuzio bide egonkorrik, proiektuaren arabera ahalegindu da euren iritzia jasotzen.

4. ADMINISTRAZIOA

4.3. BERARIAZKO POLITIKAK: DIRULAGUNTZA-POLITIKAK (dirulaguntza garrantzitsuenak, helburuak, hartzailleak, betebeharrak...)

HIZKUNTZA-POLITIKAK

Hizkuntza Politikarako Sailbuordetza:

- **Lanhitx. Enpresei bideratua.** Euskara-planak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko.
- **Erabilera-planak eta ESEP garatzeko** dirulaguntzak. Tokiko erakundeei. Bertan behera geratu da ETEL argitaratu ondoren
- **Euskara ingurune digitalean.** Xedea da, Ingurune Digitalean euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak arautzea eta deialdia egitea. Horretarako, bi multzo bereiziko dira:
ID1. Interneten edukiak euskaraz soilik hedatuko dituzten egitasmo ez komertzialak (300.000 euro):
2019an abian jarriko diren egitasmoen garapena eta horiek hornitzeko euskarazko edukiak.
Lehendik abian dauden egitasmoetan funtzionalitateak hobetzea edo gehitzea edota egitasmoak hornitzeko euskarazko edukiak gehitzea.
ID2. Interneten euskaraz gain beste hizkuntza batean edo batzuetan zabaltzen diren egitasmo ez komertzialetako euskarazkobertsioak (150.000 euro):
2019an abian jarriko diren egitasmoen garapena eta horiek hornitzeko euskarazko edukiak.
Lehendik abian dauden egitasmoetan funtzionalitateak hobetzea edo gehitzea edota egitasmoak hornitzeko euskarazko edukiak gehitzea.

Onuradunak:

Hauek dira laguntza-modalitate honen hartzailleak: Enpresa guztiak, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta legalki eratuta badaude indarrean dagoen araudiaren arabera, betiere aipaturiko egitasmoak burutzen badituzte.

Diru-laguntza deialdi honen ondorioei dagokienez, honako hau da enpresaren definizioa: jarduera ekonomikoa gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridiko pribatua.

Beste laguntza batzuk:

- Hedabideak (Hekimen-ekin, euskarazko hedabideen elkartarekin, hitzarmena); euskarazko hedabideak diruz laguntzeko modu iraunkorren; nazional-mailakoak nahiz tokikoak.
- Euskalgintza deialdia: aisialdia, jardunaldiak, irakurzaletasuna, etab.

HABE:

- Euskaltegiak. Kontzertazioa.

Aldundiak:

4. ADMINISTRAZIOA

4.3. BERARIAZKO POLITIKAK: DIRULAGUNTZA-POLITIKAK (dirulaguntza garrantzitsuenak, helburuak, hartzaileak, betebeharrak...)

- Bizkaiko Fordu Aldundia:
 - Euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, udal erakunde autonomoei eta mankomunitateei dirulaguntzak
 - Merkataritza-sozietateei, kooperatiba- sozietateei, banakako enpresaburuei, profesionalei eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, baldin eta 2019ko ekitaldian euskarazko aldizkariak argitaratzen badituzte.
 - Euskara informazio eta komunikazioaren teknologietan egon dadin ekoizkinak egiten dituztenei
 - Euskararen erabilera sustatzeko planak garatzen dituzten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei
- Gipuzkoako Foru Aldundia:
 - Lantokietan prestakuntza aldiak euskaraz egiteko dirulaguntzak
 - Euskararen erabilera soziala normalizatzeko tokiko planak
 - Euskara sustatzeko proiektuak eta jarduerak
 - Informazio eta komunikazio teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak
- Arabako Foru Aldundia:
 - Kuadrilla eta udalek euskararen bitartez sozializatzeko programak eta jarduerak garatzeko.
 - Kultura elkarte eta entitate, kirol federazio eta kirol federazioen elkarte eta guraso elkarten federazioek euskararen bitartez sozializatzeko programak garatzeko laguntzak.
 - Tokiko edo eskualdeko euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak.
 - Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak
 - A1, A2, B1 eta B2 mailetako matrikularen prezioa gutxiagotuz euskalduntzea sustatzeko.

Udalerriak:

- Euskara ikasteko dirulaguntzak
- UEUko ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak
- Tokiko euskarazko hedabideei dirulaguntzak
- Udalerriko euskara elkartei dirulaguntzak

4. ADMINISTRAZIOA

4.3. BERARIAZKO POLITIKAK: DIRULAGUNTZA-POLITIKAK (dirulaguntza garrantzitsuenak, helburuak, hartzaileak, betebeharrak...)

BERDINTASUN-POLITIKAK

Emakundek:

- Berdintasun planak egiteko dirulaguntzak toki erakundeentzat: planak ebaluatu eta berriak egiteko. Indarkeria matxistaren inguruko diagnostikoak eta planak egiteko ere bai. Ez gainerako gaietan berariazko diagnostikoak eta planak egiteko.
- Berdintasun planak egiteko dirulaguntzak enpresentzat: Lehenengo aldiz diagnostikoa egin eta plana diseinatzeko. Garapena ez da laguntzen.
- Berdintasuna sustatzeko ekintzak egiteko dirulaguntzak emakumeen elkarteentzat.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko dirulaguntzak elkarteentzat.
- Berdintasun arloan ikerketak egiteko beka.
- Berdintasun arloan ikerketak argitaratzeko laguntzak.

Aldundiek:

- Irabazi asmorik gabeko erakundeak, berdintasuneko ekimenak garatu ahal izateko.
- Udalak, egitasmo edo lan-ildo zehatzak garatzeko.

Udalak:

Dirulaguntza-politika esanguratsurik ez, oro har.

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

HIZKUNTZA-POLITIKAK

OINARRI JURIDIKOA

Ez dago inongo legetan jasota erakunde publikoen jarduera guztian hizkuntza-ikuspegia txertatzeko betebeharra.

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioak (ELE) egiteko betebeharra ezartzen die tokiko erakundeei edozein plangintza egiterakoan.

TREBAKUNTZA

Euskararen ezagutzara bideratutako prestakuntza-politika (hizkuntza-gaitasunetan oinarrituta). Ez da sortu eta eskatu ezagutza soziolinguistikoan oinarritutako prestakuntzarik.

ESTATISTIKAK

Euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko berriazko azterketek gain, bestelako estatistika eta datu-bilketetan ez da hizkuntza-gaitasunaren inguruko daturik biltzen, oro har (lehen aipatutako salbuespen batzuk salbu, adibidez, Eustaten Enplegua). Ez dago landuta eta barneratuta hizkuntza-ikuspegiaren zeharlerrotasuna, hau da, hizkuntza-aldagaia orokorrean txertatzeko beharra.

Hizkuntza-gaitasunaz edo zerbitzua zein hizkuntzatan jaso nahi den galdetzen da herritarren eskubideen ikuspegitik, hau da, administrazioak jakin behar duenean herritar bakoitzak zein hizkuntzatan jaso nahi duen zerbitzua.

AURREKONTUAK

Jaurlaritzan ez dago diseinatuta, are gutxiago sistematizaturik aurrekontu orokorrean hizkuntza-ikuspegia txertatzeko betebeharra (nola egin, nork eta noiz). Areago, ez dago inon betebehara gisa ere jasota. Guk dakigula Bikainera aurkeztu direnak ari dira zeozer egiten (Lehendakaritza eta Emakunde, bereziki, eta Kultura Saila); ez hainbeste diru kontuak zenbatzen, baizik eta aztertzen egiten den oro zenbateraino egiten den normalizazio ikuspegiarekin. Hala ere, ez dira politika publikoen edukia aztertzen, baizik eta jardunaldiaren hizkuntzen kudeaketa, etab.

Gure arloan inportanteena ez da diru partidak nola banatzen diren gure arloan eta ea horrek eragiten duen euskaldunen bazterte sozial eta ekonomikoan. Gure arloan

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

helburuak eta ekintzak diseinatzerakoan beroriek zer-nolako eragin linguistikoa izan dezaketen sailek sistematikoki hausnar dezaten da gure helburua.

Berdintasunarekin batera, aurrekontuak egiteko aplikazioan aldaketak sartu nahi ditu HPSk, aurrekontuetan partidak eta proiektuak sartzen dituztenean aurrera joateko ezinbestean Genero berdintasuneko ikuspegia eta hizkuntza Normalizazioko ikuspegia txerta dadin. Aspaldi elkarriketatu ginen aplikazio berria egiten ari den Zuzendaritzakoekin eta hori egiteko arazorik ez zuten ikusten. Dena dela, badirudi aplikazio horren gauzatzea geldirik dagoela.

Emakundek eta Lehendakartzak aurrekontuak egiteko era hori badute HPSk Bikain aurre-ebaluazio bat egin zietelako eta bere zer-hobetuetan hau egitea proposatu zielako da. Lotura handia du BIKAIN kudeaketarekin.

Bestetik, aurrekontu orokorrean aztertu izan da euskarari bideratutako ehunekoa. SIADECOK egiten du 2 urtean behin.

KLAUSULA SOZIALAK

Bi eratakoak izan daitezke eskaerak:

1. Kanpoko enpresa batek administrazioaren izenean eman behar duenean zerbitzua, administrazioaren betebeharrak berdinak ditu eta zerbitzua euskaraz ematea eskatzen zaio. Ez dakigu zenbateraino egiten zaion jarraipena betetze-mailari.
2. Kontratatu den enpresak, euskara-plana izatea, euskara sustatzea baloratzea, ziurtagiriren bat izatea...

Jaurlaritzan: HPSk txertatzen ditu, gainerako sailek apenas. HPSk azterketa bat egin zuen duela gutxi dirulaguntza-deialdietan, dirulaguntza zuzenetan eta izendunetan jakiteko noraino txertatzen diren hizkuntzaren inguruko klausulak. Emaizak eskuragarri daude, baina laburbilduz, esan dezakegu dirulaguntza deialdietan, oro har, ezartzen direla, betiere dirulaguntzaren xedea hizkuntza baldin bada; ez ordea zuzenetan eta izendunetan. Txertatzerik badago, noski, eta egingo dugu saileko zuzendaritza guztietan, baina horien jarraipena egitea eta betearaztea zaila iruditzen zaigu.

Legeez gain, EJko zirkular bat dago horren gainean.

Eusko Jaurlaritzak bere jardunean herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu, eta jardun hori betetzeko zenbaitetan enpresak azpikontratatu ditu. Azpikontratatuak enpresa horiek jardun horretan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen dituzten, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak honako hizkuntza-jarraibideak proposatu ditu:

1. HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK

- Aurrez aurre eta telefonoz: Lehen hitza euskaraz egingo du langileak, eta herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko du. Langileak euskaraz ez badaki, euskaraz dakien langile batek artatua izatea eskainiko dio herritarri.

2. HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK

- Herritarrek egindako eskaera bati erantzutean: herritarrek egindako eskaeran erabilitako hizkuntza ofizialean erantzungo zaio.

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

- Enpresak igorritako idatzizko lehenengo komunikazioa denean: oro har lehenengo komunikazioa ele bietan egingo da, euskara grafikoki nabarmenduz (euskarazko testua orriaren aurrealdean edo goialdean jarriz, bi zutabe erabiltzen direnean euskarazko testua ezkerrekoan jarriz, agiria orrialdeka banatzen denean euskarazko testua eskuineko aldean jarriz, edota euskarazko testua letra loditan edo larritan jarriz).

3. INFORMAZIOA ZABALTZEKO BIDEAK

- Errotuluak: bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskara grafikoki nabarmenduz (euskarazko testua goialdean edo ezkerrean jarriz, edota euskarazko testua letra loditan edo larritan jarriz, besteak beste). Hitz bakar bat edo testu labur bat berdina edo ia berdina baldin bada bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz bakarrik idatzi ahalko da.
- Hartzaiile zehatzik ez duten ahozko mezuak (bozgorailuz edo audioz zabaldutakoak): lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz zabalduko dira.
- Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak: euskararen gutxieneko erabilera bermatuko da egoera guztietan, eta hartzaiileen hizkuntza-gaitasunaren arabera euskara lehentasunez erabiliko da. Kanpaina edo ekitaldien diseinuen hasierako faseetatik kontuan hartuko da euskararen erabilera.
- Ingurune digitalak (webguneak, sare sozialak, edota aplikazio informatikoak): herritarrei informazioa zabaltzeko helburua dutenean euskaraz eta gaztelaniaz eskaini beharko dira.

Praktika onak Hezkuntzan detektatu genituen, kontratuetan.

Betalde, azken urtean, **SPRIK** (Enpresa garapenerako euskal Agentzia) lau dirulaguntzatan txertatu izan du, Bikain ziurtagiria duten enpresak sarituz:

- Bitan, puntuazio altuagoa eman zaie ziurtagiria zutenei.
- Beste bitan, diru-kopuru handiagoa.

Aldundietan: Gipuzkoako Foru Aldundiak txertatzen ditu. Batez ere, Euskara Plana izatea eskatzen zaie, baina administrazio publikoaren zerbitzu bat eman behar dutelako gehienetan (garraio-kontuak edo dependentzia-egoerei lotutako zerbitzuak). Baina, hortik kanpo ere eskatu izan dira (eraikuntza-enpresei, esaterako). Segimendua egiten da, nolabait, eta Euskara Plana eskatzen da. Kontua da Euskara Plana izateak ez duela bermatzen gaia benetan landuko denik.

Udalerrietan: Alde handia dago udal batetik bestera. Udal batzuk ibilbide luzea dute eremu honetan eta sistematikoki txertatzen dituzte euskara-betebeharrak, kontratatzen den zerbitzuak udalaren lan-hizkuntzan eragiten duen neurrian (solaskideek euskaldunak izan behar dute eta txostenak, bilerak, aktak, etab. euskaraz egingo dira) eta zerbitzu-hizkuntza izan daitekeen neurrian, herritarrekin harremanik izango badute (euskararen ezagutza bermatu beharko da). Ezinbesteko baldintza gisa ezarri ohi dira klausula hauek eta segimendua egiten zaie. Sektore batzuetan betearazteko zailtasunak.

INPAKTU-TXOSTENAK

Orain gutxi arte garatu gabeko eremua izan da. Onartu berri den dekretuak (179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa) ELEak (Eragin Linguitikoaren Ebaluazioak) egiteko betebeharra eta modua zehazten du.

Lurralde-eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta plan pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea da egitasmo honen helburu nagusia. Horrez gain, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea ere bai.

Eragin linguistikoaren ebaluazioak adostasun politikoak, babes juridikoa eta soziala ezinbestekoak ditu, benetan, horren helburuz proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek euskarari kalterik ez egitea lortuko badugu.

ELERen aplikazioak lehendik ere bistakoa zena, baina behar beste mahai gaineratu ez zen ebidentzia jarri du guztion begien bistan: hizkuntza-politikek erabateko zeharkakotasuna dute. Arnasguneen bilakaerak argi erakusten du, lurraldearen antolaketa-mailan garatutako politikek eta garapen teknologikoak eremu horietako hizkuntza-politikatzat hartu diren politikek baino eragin dezente nabarmenagoa izan dutela. Hizkuntza-politikaren paradigma moldatu eta politikaren sail baten gisa ulertu beharrean, politikan oro har integratu beharreko ikuspegi gisa ulertu beharko litzateke. Bai norabide horizontalean, arlo edo departamentu desberdinetan; bai eta norabide bertikalean, Toki Administrazioetik Administrazio Nagusiraino. Horrek politika guztiek dakarten hizkuntza errealitatearen bilakaera aintzat hartzetik, sakoneko aldaketak ekarri beharko lituzke.

1. Udalerriek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:

a) Planak:

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
- Sektorizatze-plana.
- Plangintzako arau subsidiarioak.
- Plan partzialak.
- Hiri-antolamenduko plan bereziak.
- Turismo-planak.

b) Proiektuak:

- Merkataritzagune handiak eraikitzekeo proiektuak.

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

– Industriaguneak eta teknologia-parkeak eraikitzeko proiektuak.

2. Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnasmuneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.

Tresna eta gida bat daude sortuta. Administrazioako euskara-teknikarientzat trebakuntza-saio bat antolatu du HPSk UEMArekin elkarlanean.

BERDINTASUN-POLITIKAK

ONARRI JURIDIKOA

4/2005 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea da zeharlerrotasunaren oinarri juridiko nagusia.

Tokiko Administrazio batzuk Ordenantzak egin dituzte 4/2005 legean oinarrituta.

TREBAKUNTZA

Helburua: Langile publiko guztiek baita politikariak ere bere esparruan genero ikuspegia eta berdintasuna bultzatzeko gaituak izatea.

Estrategia eta neurriak:

1. IVAPek berdintasun ikastaroak eskaintzen ditu urtero, aurrez aurrekoak eta Internet bidezkoak. Horretarako, Emakunderekin koordinatzen da.
2. Berdintasun Unitateek langileei publikoei bideratutako ikastaroak antolatzen dituzte.
3. Ekintza positiboak berdintasun ikastaroekin (ordu-kreditutik kanpo geratzen dira)
4. Emakundek eta EHUK elkarrekin berdintasun inguruko ikastaroak antolatzen dituzte.
5. Emakundek eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berdintasun inguruko ikastaroak antolatzen dituzte.

Aldundiek eta udal batzuk beraien langileen prestakuntzarako dituzten planetan jasotzen dituzte berdintasunaren inguruko ikastaroak. Horrez gain, Aldundietako eta udaletako langileek IVAPek Internet bidez antolatzen dituen berdintasun ikastaroetan parte har dezakete.

ESTATISTIKAK

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

Helburua: Genero-ikuspegia eremu eta jardueretan benetan integratzen dela bermatzeko, euskal herri-aginteez beren azterlanak eta estatistikak egiterakoan genero-ikuspegia txertatu behar dute esku-hartzearen eremu ezberdinetan emakumeek eta gizonek bizi dituzten egoera, baldintza, jomuga eta premia ezberdinen berri eduki ahal izateko.

Estrategia eta neurriak:

1. Berdintasun unitateek organo estatistikoekin eta zuzendaritzekin lankidetzan ekarpenak egiten.
2. Ikerketa berriak sustatzen.
3. Ikastaroak sustatu dira IVAP-en bitartez, organo estatistikoekin eta estatistikak eta ikerketak kudeatzen dituzten langileei zuzenduta: "Diagnóstico de la realidad con perspectiva de género". "Metodología feminista en las investigaciones cuantitativas".
4. Eusko Jaurlaritzan EUSTAT eta bere berdintasun unitatearen rola eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak onartutako jarraibideak aplikazioetan sexu aldagaia txertatzen da bermatzeko.

EAEko berdintasunerako planaren ebaluazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzako estatistiketan sexu aldagaia modu sistematikoan txertatzen eta ustiatzen da.

Aldundietan, berriz, sexu aldagaia modu ez-sistematikoan txertatzen eta ustiatzen da.

Udalei dagokienez, alde handia dago udal batetik bestera. Zeharlerrotasunaren estrategia, oro har, ez da ibilbide luzea daukan estrategia bat udaletan. Orain arte gehiago aritu dira berdintasuneko berariazko politikak garatzen. Gipuzkoan, esaterako, azken urteotan bultzada bat izan du estrategia honek Aldundiaren eskutik. Zehazki, Aldundiak trebakuntza-ziklo bat eskaini die berdintasun-teknikariei estrategia hau garatzen hasteko; eta, ondorioz, hainbat udal estrategia garatzen ari dira modu sistematikoagoan. Estatistiken eremua ere hor sartzen da. Udal batzuk inprimaki, datu-base eta erregistroetan sexu-aldagaia txertatzeko bidea egiten ari dira, ez zailtasun gutxirekin eta emaitza ezberdinekin.

AURREKONTUAK

Genero aurrekontuen prozesuaren **helburu nagusia** hau da: politika publikoak generoarekiko neutroak ez direla erakustea — hau da, gerta litekeela emakumeentzat eta gizonentzat eragin berdina ez izatea—, eta programa egokien eta programa garrantzitsuen azterketa egin ondoren, aldaketak sartu ahal izatea, ekintza publikoan hobekuntza-prozesuak sustatzeko, berdintasunezko gizartearen lortzeko bidean.

Oinari juridikoa eta teknikoa:

- 4/2005 Legea. 14. artikulua. Autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-administrazioaren eta toki-administrazioaren aurrekontuak.

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

- VII Berdintasunerako Planean BG.10.AURREKONTUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA.
- Saileko Berdintasun planean txertatzen da helburu bat
- AURREKONTU-PROGRAMAK GENERO-IKUSPEGITIK AZTERTZEKO FORMULARIOA BETETZEKO JARRAIBIDE TEKNIKOAK (P20-Gen)

Estrategiak eta neurriak:

Eusko Jaurlaritzan eta zenbait instituziotan genero aurrekontuen inguruan proiektuak bideratzen ari dira. Kultura eta hizkuntza Politikako Saileko sailburu, zuzendari eta zerbitzu-buru guztiek genero aurrekontuetan trebakuntza jaso dute.

Gipuzkoako Foru Aldundian tresna informatiko bat daukate eta aurrekontuak zehazterakoan sail guztiak behartuta daude azaltzera zehaztutako ekintza bakoitza euskarako, berdintasuneko eta partaidetzako zein helbururekin lotzen den.

- Udaletxetan esperientzia batzuk egin dira: Bilbon, Basaurin, Ermuan, Getxon... Baina oro har gaia ez dago oso garatua.

Egoera: Gaur egun Eusko Jaurlaritzan berdintasun egituren aurrekontua aurrekontu osoaren % 0,07 inguru da. Berdintasun Legea onartu zenean % 0,04 inguru zen. Orduan izan zen hazkunde nabarmena eta orduan onartutako portzentajea nahiko egonkor mantendu da (%0,07).

KLAUSULA SOZIALAK

Kontratu publikotan, dirulaguntzatan eta hitzarmenetan berdintasuneko betebeharrak ezartzeari buruz ari gara.

Egoera:

Nabarmenezkoa da aurren Eusko Jaurlaritzak kontratazio arloan berdintasuna txertatzeko jarraibide berriak onartu dituela.

Gai honen inguruan Emakundek 2015 kanpo ebaluazio espezifiko bat egin zuen eta hau izan zen ondorio nagusia:

“Azken urteotan garatutako esperientziei esker, nahiz eta administrazioen artean desberdintasunak egon garapen-mailan eta oraindik ere bide luzea geratzen zaigun arren, honako hau lortu dugu: arau multzo bat, sentsibilizatutako eta prestatutako jende multzo bat, giden eta protokoloen babesa duten argudioak, eta oinarritzeko prozesu metodologiko bat, berdintasun-klausulak dituzten kontratu eta diru-laguntzetan oinarrituta. Horrek guztiak zera adierazten du, aurrerabide handia egon dela eta EAEko administrazio publikoak aitzindari eta erreferente bihurtu direla: aitzindari, ibilbide luzea egina dutelako, eta erreferente, interesa duten beste administrazio publiko batzuentzat eta/ edo autonomia-erkidegoetako beste gobernu batzuentzat, gai honi dagokionez. (...) Orain, klausulen helburuak eta edukia indartzeko ekintza eta neurri berriei erreparatu behar diegu, eta batik bat, klausula horien jarraipena eta ebaluazioa

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

egiteko neurriak garatu eta aplikatzeko ekintza eta neurriei.”

Aldundiak. Gaia landu da, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundian. Kontratu publikoetan txertatzen dira berdintasuneko klausulak, oro har. Orain arte, Berdintasun Planak egitea eta antzeko betebeharrak eskatu izan dira. Klausula-mota horien eragina mugatua dela baloratzen da eta kontratazio publikoaren lege berriak klausula zehatzagoak txertatzeko aukera ematen du, inpaktu zehatzagoa izan dezaketenak. Gaur egungo klausulak fintzeko beharra, baita betebeharrak egiaztatze eta segimendua egiteko sistemak/mekanismoak ere.

Udal batzuk ari dira berdintasuneko klausulak txertatzen, Berdintasun Plana izatea eskatzeaz harago joanaz. Adibidez, jardueratan genero-ikuspegia txertatzeko betebeharra, sektore feminizatuetan lan-baldintzak hobetzeko betebeharrak, sektore maskulinizatuetan emakumeen partaidetza areagotzeko betebeharrak, sexu-jazarpenari aurre egiteko protokoloak ezartzeko betebeharrak, etab.

INPAKTU-TXOSTENAK

Helburua: Arauetan genero ikuspegia txertatzea

Generoaren arabera eraginari buruzko txostena dokumentu bat da. Dokumentu horretan, alde batetik, aztertu egiten da arauan jasotako jarduera mesedegarri edo kaltegarri den esku hartu nahi den gizarte-testuinguruan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko; eta bestetik, azterketa horren arabera, arau-proiektuan sartu beharreko **neurri zuzentzaileak edo aldaketak jasotzen dira, eragin kaltegarria neutralizatzeko edo, kasuan kasu, eragin mesedegarria indartzeko.**

Gipuzkoako Foru Aldundian egiten dira. Ogasunean modu sistematikoan (araudi berri bat lantzen den aldiro) eta beste sail batzuetan plangintzen inpaktu-txostenak egiten dira.

Udaletan apenas garatu da tresna hau. Udal handi batzuetan egiten da, adib. Donostiako Udalean. Badirudi hirigintzako plan orokorretan, adibidez, genero-ikuspegia txertatzeko eskaera zabaltzen hasi dela eta, kasu batzuetan, inpaktu-azterketa egiteko betebeharra.

Balorazioa

EAEn generoaren arabera Eraginaren aurretiko Ebaluazioa ezartzeko eta finkatzeko prozesuan dago. Bere potentzialtasun osoan garatu ez bada ere, araugintzaprosesan modu sistematikoan txertatzea lortu da. Berdintasunerako Legea ezar dadin bultzatzeko potentzialtasun handia duen tresna da.

GEEaren prozesua politikaren edukiei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko tresna garrantzitsu bat da. Nolanahi ere, generoaren arabera eraginaren diagnostikoa eta ebaluazioa lantzeko konplikatuena den prozesuaren zatiak dira, eta trebatzeko eta laguntzeko prozesu jarraitu bat behar du bere ahalmena erakusteko eta eraldatzeko

4. ADMINISTRAZIOA

4.4. ZEHARLERROTASUNAREN ESTRATEGIA: jarduera administratiboan genero- eta hizkuntza-ikuspegia txertatzeko tresnak

gaitasunik ez duen izapide ez bihurtzeko eta ondorio gisa politiken edukien berrikuspen integrala eman ahal izateko.

Bestetik, badaude hainbat jarraibide sortuta (Emakundek, GFAk eta Eudelek landuak), inpaktu-azterketak nola egin laguntzeko helburua dutenak.

Oharra: *Hasieran esan bezala, dokumentu hau ez da azterlan baten emaitza eta hutsune asko izango ditu; baina egitera goazen lanketaren helburua ez da dokumentua osatzea, baizik eta gogoeta bat egitea hizkuntza-politiken eta berdintasun-politiken inguruan, elkarrengandik ikasteko eta politikok indartzeko. Eta dokumentuak gogoetarako tresna izan nahi du, ezagutzen ez dugun eremuari buruzko oinarritzko ezagutza bat eskainiko diguna. Edozein modutan, dokumentua osatzeko proposamenak badituzu, idatziz pasa eta jasoko ditugu.*